# XL Semana de la música vasca

Del 12 al 19 de mayo de 2012

Organizan:
Coral Andra Mari
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

Promueve:
Ayuntamiento de Errenteria

Patrocinan:
Gobierno Vasco
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kutxa

Colabora:
Super Amara
Errenteria Musikal

Fotografía:
Iñigo Arizmendi

catalogo Musikaste5.indd 1 23/04/12 15:34

# XL. Euskal musikaren astea

## Francisco Escuderoren jaiotzaren mendeurrena

Musikastek bere 2012ko edizioan Francisco Escuderoren jaiotzaren mendeurrena ospatu nahi du. XX. mendearen bigarren erdialdean egin zuen irakaskuntza lan garrantzitsuak, Euskal Herriko musikan izan den pertsonai garrantzitsuenen artean kokatzen du Francisco Escudero. Hala ere bere sormen lana izango da gure artean geratu eta bere izena euskal musika sinfoniko, ahots eta lirikoaren sortzaile garrantzitsuenetako bat bezala gogoratuko diguna.

## Mª Victoria Figuerido, biolin jotzailea eta musikagilea

Irunen jaiotako biolin jotzaile eta musikagilea genuen Mª Victoria Figuerido. Bere aitak, Cesar Figuerido biolin jotzaileak, irakatsi zion musika. Irekiera garai baten adibidea dugu, emakumeak ohikoak ez ziren aukera eta lanbideak lortzen hasi ziren. Musikastek bere lana erakutsi nahi du Emiliana Zubeldia edo Emma Chacón emakume konposagileen lanekin batera.

## José Azpiazu, gitarraren artista

Oñatiar honen gitarra eta hari pultsatuko musika zabaltze eta sortze lana handia izan zen, bai musika klasikoan bai eta musika garaikidean ere. Gitarraren garapenean pertsonai oso garrantzitsua bilakatu zen.

Musikastek gainera sortzaile bezala bere lana gogoratu nahi du.

## Bandarako obren estreinaldiak

2011ean Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Bandak eta Musikagileak, Euskadi eta Nafarroako musikagileen elkarteak, Nazioarteko I. Musika Bandentzako konposizio lehiaketa abian jarri zuten. 2012ko Musikasten obra irabazlea estreinatuko da, Jesus Egiguren musikagilearen obra, bai eta Jose Antonio San Miguel musikagilearen obra saritua ere.

## Musikenetik sortutako musikagile berriak

Musikenen badira hamar urte baina gehiago konposizioko espezialitatea ematen hasi zirela eta honek musikagile berrien hainbat promozio daudela esan nahi du. Musikastek musikagile berri hauei lekua ematen die beraien sortze lanak ezagutzera emateko.

## Musikaste 40 urte

1973 urtean Jose Luis Ansorenaren eskutik sortu zen, Euskal Herriko musika sortzaileen lana zabaltzeko asmoz. 40 urte kontzertu, mahai-inguru, hitzaldi, erakusketaz beteak, Euskal Herriko musikagileen lana eta musika memoria zabaltzeko egin den bidearen adierazgarri.

### *II. Jaiotzaren mendeurrenak*
### *II Centenario del nacimiento*

Venancio HERRASTI (Aretxabaleta, 1812-1887)

### *I. Heriotzaren mendeurrenak*
### *I Centenario del fallecimiento*

Cleto ZAVALA (Bilbao, 1847-1912)
Valentín de ARÍN (Ordizia, 1854-1912)
Antonio REYNOSO (Bilbao, 1869-1912)

### *I. Jaiotzaren mendeurrenak*
### *I Centenario del nacimiento*

Serafín ARGAIZ (Pamplona, 1912-1967)
Alexandre LESBORDES (Baigts de Béarn, 1912-1969)
Mª Victoria FIGUERIDO (Irun, 1912-1972)
Francisco ARRARÁS (Pamplona, 1912-1978)
José de AZPIAZU (Oñati, 1912-1986)
Primitivo AZPIAZU (Zumarraga, 1912-1990)
José GAINZA (Gernika, 1912-1992)
José León URRETA (Donostia, 1912-1998)
Francisco ESCUDERO (Donostia, 1912-2002)



catalogo Musikaste5.indd 2 23/04/12 15:34

# XL Semana de la música vasca

## Francisco Escudero en el centenario de su nacimiento

*Musikaste quiere destacar en la edición 2012 la celebración del centenario del nacimiento de Francisco Escudero. Su importante labor en el ámbito de la enseñanza durante la segunda mitad del s. XX le convierte en una de las personalidades indispensables para la música en el País Vasco. Pero es su labor creadora la que permanecerá y recordará su nombre como uno de los principales compositores de música sinfónica, vocal y lírica vasca.*

## Mª Victoria Figuerido, violinista y compositora

*Violinista y compositora irunesa formada por su padre, el también violinista César Figuerido, es un ejemplo de una época de apertura en la que la mujer alcanza profesiones y oportunidades poco frecuentes. Musikaste quiere recordar su labor compositiva juntamente con la labor de otras mujeres compositoras como Emiliana Zubeldia o Emma Chacón.*

## José Azpiazu, artista de la guitarra

*Personalidad surgida desde Oñati, su labor en la difusión y edición de la música para guitarra e instrumentos de cuerda pulsada, tanto antigua como clásica y contemporánea, le convierte en una personalidad clave en el desarrollo de la guitarra. Musikaste quiere recordar además su labor como creador.*

## Estrenos de obras para banda

*La Banda de la Asociación de Cultura Musical de Errenteria, juntamente con Musikagileak, Asociación Vasco-Navarra de Compositores, lanzó en 2011 la convocatoria del I Concurso Internacional de Composición para Bandas de Música. Musikaste 2012 estrenará la obra ganadora, de Jesús Eguiguren, así como la obra premiada de José Antonio San Miguel.*

## Nuevos compositores surgidos de las aulas de Musikene

*Más de diez años de enseñanza de la especialidad de composición en Musikene, Centro Superior de Música del País Vasco, suponen la formación de varias promociones de nuevos compositores. Musikaste ofrece nuevamente el escenario a las recientes propuestas de las últimas generaciones con el ánimo de que sean apoyos a la consolidación de nuevos valores creativos.*

## 40 años de Musikaste

*En 1973 surgía de la propuesta de José Luis Ansorena la semana Musikaste, como escaparate de la labor de los creadores musicales vascos de todos los tiempos. 40 años de conciertos, conferencias, mesas redondas, exposiciones, suponen un camino que los organizadores creen más que nunca necesario para recoger, crear y difundir la memoria musical y la creación de los compositores de Euskal Herria.*



Francisco Escudero



Mª Victoria Figuerido



José de Azpiazu



catalogo Musikaste5.indd 3 23/04/12 15:34

2012-V-12

larunbata, 12:30ean - Xenpelar Kultur Etxea
sábado, 12:30 horas - Casa de Cultura de Xenpelar

# inaugurazio jarduna
# jornada inaugural

## Memoriaren trasmisioa

**ESKUDERO, herri musika memoriaren berritzaile**
Itziar Larrinaga-ren eskutik

**MUSIKASTE, 40 urte**
Jon Bagüés

**Sü azia, proiektua, Zuberoko doinu memoriaren gordeleku**
Maddi Oihenart-en eskutik agerraldi kantatua




Jose Ignazio Ansorena
(Musikaste 2011)



Itxaso Trio
(Musikaste 2011)

2012-V-12

larunbata, 18:30tik 21era herriko gune ezberdinetan
sábado, 18:30 a 21 horas en diferentes espacios urbanos

## Olatu Talka
## Errenterian




Herriko talde-abeslari, musikari eta dantzarien, musika eta dantza emanaldiak herrian zehar.

*Actuaciones musicales y de danza de diversos grupos, conjuntos de músicos y dantzaris.*

21etan guztiek batera eskainiko dute emanaldia Herriko Enparantzan.

*Actuación conjunta de todos los participantes a las 21 horas en la Herriko Enparantza.*

larunbata, 23etan - Kabia-espazio kreaktiboa (Pontika)
sábado, 23 horas - Kabia-espazio kreaktiboa (Pontika)

## mugetan
## en las fronteras

**EMTE Musika taldeak**

**ODIO**

**KE+DA**

Kabia
espazio kreaktiboa



catalogo Musikaste5.indd 5 23/04/12 15:34

# Itziar Larrinaga

Oviedo Unibertsitateko doktorea da Historia eta Musikaren Zientzian, eta Musikaren Historiaren ikasgaiko irakasle da Musikenen (Euskal Herriko Goi Mailako Zentroa). 2005az geroztik, Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko arduraduna da eta Musiker koadernoa zuzentzen du. 2009an, Musika Ikerketako Donostiako Orfeoia-EHU IX. Saria lortu zuen, eta Oviedoko Unibertsitateko Doktoretza Sari Berezia, 2010ean, biak Francisco Escudero musikagilearen irudiari buruzko ikerketagatik. Hainbat erakunde, instituzio eta bitartekorekin parte hartzen du euskal musika ondarearen ikerketa eta dibulgazioan, XX. Mendeari dagokionean bereziki, bere artikulurik gehienak horren inguruan izanik. Espainiako Musikologia Sozietateko kide da, eta, baita Txoke!–koa ere, Kultura Ondarearen Ikerketa eta Berreskuratzerako Europar Elkartea, hain zuzen ere.

*Es doctora en Historia y Ciencias de la Música por la Universidad de Oviedo y profesora de Historia de la Música de Musikene-Centro Superior de Música del País Vasco. Preside la Sección de Música de Eusko Ikaskuntza desde 2005 y dirige el Cuaderno de Sección Musiker. En 2009 obtiene el IX Premio Orfeón Donostiarra-UPV a la investigación musical y, en 2010, el Premio Extraordinario de Doctorado de la Universidad de Oviedo, ambos por su estudio de la figura del compositor Francisco Escudero. Colabora activamente con diferentes instituciones, entidades y medios en la investigación y divulgación del patrimonio musical vasco, especialmente el concerniente al siglo XX, sobre el que versan la mayor parte de sus publicaciones. Es miembro de la Sociedad Española de Musicología y de Txoke!, la Asociación Europea para la Investigación, el Rescate y la Puesta en Valor del Patrimonio Cultural.*

# Maddi Oihenart

Barkoxen sorturik, ta hanko bortu ondoetan hüllantik (gertutasunez) senditürik, bazterrez bazter dabilen botza zaindu du.

Artaldien zintzarradekin, mendien sehaskan handitu da, herriaren hatsaz hazirik. Gaur egun, kantatzen segitzen du, "a capella" eta hainbat musikarien laguntzaz, bai Zuberoko kanta ohizkoak, baita ere kantu berriak, inguruan diren gaurko idazleei esker. Zuberoatik, pireneoatara… Maddiri gustatzen zaio gehien bat, entzutea, ezagutzea, ta harremanak sortzea beste herrialdetako jendearekin: hala nola hasi zen kantan Batixta Sobietekilan, ondotik segitu du Mixel Etxekopar ta Mixel Arotze-rekin, bai ta ere Josetxo Goia, Juantxo Zeberio, Marc Buronfossekin "Ilargi-min" azken diskoan.

Euskal kantua ezagutaraztea, herrian gainti ta munduan zehar zaio baliosoa. Indartsua, aberatsa ta idekirik den euskal kantua, bere lurraldean hazirik, hedatzeko gogoz: Uzbekistanen ibili izan zen Ruper Ordorika ta Joseba Tapia-rekin, eta iraila hontan abian da Géorgiarat, hanko polifoniak ezagutzeko, ta euskal kantuak entzunarazteko. Bide xumea, urratsez urrats, segitzen du.

*Natural de Barkoxe y sintiéndose cercana a sus cumbres y sus rincones, ha querido conservar la voz de estos. Ha crecido con el aliento del pueblo, mecida por los montes y por las esquilas de los rebaños. Canta, tanto "a capella" como acompañada de músicos, canciones tradicionales de Zuberoa así como nuevas canciones, en complicidad con escritores próximos. De Zuberoa a los pirineos…su mayor gozo es escuchar, conocer, forjar relaciones con personas de otros lugares: colabora con Batixta Sobiet, luego con Mixel Etxekopar y Mixel Arotze; también con Josetxo Goia, Juantxo Zeberio, Marc Buronfosse en su último disco "Ilhargi Min".*

*Valora dar a conocer el canto vasco tanto en el pueblo como a lo largo del mundo. El canto vasco poderoso, rico y abierto, nacido con vocación de difundir su semilla en el pueblo: lo ha promocionado en Uzbequistan con Ruper Ordorika y Joseba Tapia, y el próximo mes de septiembre viajará a Georgia para conocer su polifonía y mostrar las canciones vascas. Sigue su camino sencillo, paso a paso.*



catalogo Musikaste5.indd 6 23/04/12 15:34

# Jérémie Garat

Musikari konpositore gaztea da Jérémie Garat, Xiberoan; Sohütako seme. Rock kultura bai eta Xiberoako ohizko kantagintzaz hazia da. «Gabekin ((O))» sortu du Maddi Oihenartekin kolaborazioan.

Bestalde, bere musikari lagunekin -(La chute de la maison Usher, Jean Epstein)- musikatu dute, eta bereziki 2011an, «XORA» bere lagun Peio Cachenaut-ren xiberotar lehen filma berriaren musika hontu du Jeremie-k. Gustatzen zaion zine musika eremu horrez gain, bere sokak -gitarra bai txeloa- batzen dira sensible, argitsu, kantarisaren botza beztituz.

*Es un joven músico compositor de Xiberoa, natural de Sohüta. Crece con la influencia simultánea de la cultura rock y de la canción tradicional xuberotarra. Crea junto a Maddi Oihenart «Gabekin ((O))».*

*Por otro lado ha puesto música a «La chute de la maison Usher» de Jean Epstein, en colaboración con otros músicos cercanos. En 2011 ha compuesto la música de «XORA», primer filme de su amigo xuberotarra Peio Cachenaut. Al arrimo de su preferida música para cine, sus cuerdas – guitarra y chelo – se unen sensibles, luminosas, envolviendo la voz de la cantante.*

# EMTE

EMTE, Errenteriako Musika Taldeen Elkartea (Errenteria)

E.M.T.E 1991. urtean hasten da eratzen, Errenteria-Oreretako musika talde ezberdinen bateratzearen ondorioz. Aurretik, kontzertuak eta beste ekitaldi batzuk antolatzen zituzten. “On Bide” zineman hasi ziren entsaiatzen, elizarena zen lokalean. Joxin Arregi apaizak elkartzera animatu zituen, ondorioz elkarte legala osatuz. Banan-bana egin beharrean, denon artean udaletxeari entsegu lokalak eskatu, eta Zamalbide auzoko “Tolare Berri” eskola ohia eskuratu zuten jarduera musikala garatzeko.

Gaur egun 19 musika talde biltzen dira bertan, 10 lokaletan banatuta. Eraikina kideen artean kudeatzen da, eta mantentze lanak beraien esku daude. Musikalki talde potenteak ateratzen dira; entsaiatzen ari diren talde batzuk sariak lortu izan dituzte bai Euskal Herrian, bai estatuan; bertan entsaiatzen duten taldeen mailaren adierazlea izanik.

2011 urtean, E.M.T.E-k 20 urte bete zituenez, CD bat kaleratu zuen kolektiboan dauden eta egon diren taldeekin. Abesti batzuk Andoaingo “ManiaticaSound” estudioetan grabatuak izan ziren eta beste batzuk taldeen disketatik atera dira.

*EMTE, Errenteriako Musika Taldeen Elkartea (Errenteria)*

*E.M.T.E comienza su andadura en 1991, como consecuencia de la convergencia de diferentes grupos de Errenteria-Orereta. Anteriormente se habían organizado conciertos y otras actividades. Comenzaron a ensayar en el cine “On Bide”, en los locales de la iglesia. El párroco, Joxin Arregi, les animó a que se organizaran, logrando finalmente constituirse legalmente como asociación. Solicitaron locales de ensayo al ayuntamiento de manera colectiva, logrando los locales de la antigua escuela “Tolare Berri” en el barrio de Zamalbide.*

*Actualmente comparten el espacio 19 grupos musicales, repartidos en 10 locales. La instalación se gestiona de manera colectiva, incluídos los trabajos de mantenimiento. El resultado es la aparición de grupos musicales potentes. Varios de los grupos que ensayan han logrado premios, tanto en Euskal Herria como en el estado: es el exponente del nivel conseguido por los grupos de E.M.T.E.*

*Con ocasión de la celebración de los 20 años de la creación de E.M.T.E., el año 2011, editaron un CD con la participación de grupos actuales e históricos. Algunas de las canciones se grabaron en los estudios “ManiaticaSound” de Andoain, completando el disco con temas extraídos de grabaciones anteriores.*



catalogo Musikaste5.indd 7 23/04/12 15:34

## *Elíz musíka*

**Jasokundeko Andre Mariaren eliza, 11etan**

*Errenteríako Andra Marí Abesbatza*

**José Manuel Tife**, zuzendaria

**Ana Belén García**, organoa

| | |
|---|---|
| **Venancio Herrasti** | *Sonata para órgano* |
| **MEZA** | |
| **Francisco Escudero** | *Gloria – Sanctus (Missa Sancti Mamessi)* |
| **Francisco Escudero** | *Itziarko Amaren Pozkarioak* |
| **Gorka Cuesta** | *Le visage du vent* |




## *Txístu emanaldía*

**Diana: Zentroan, 10etan.** Francisco Arrarás-en Auzo Soñua zortzikoa

**Kontzertua: Foru Enparantzan, 13etan**

| | |
|---|---|
| **Serafin Argaiz** | *San Fermiñetan (Biribilketa)* |
| **Valentín de Arin** | *Zortziko* |
| **Tomás Garbizu** | *Ituren* |
| **Santiago Irigoyen** | *Lesaka (Orripekoa)* |
| **Elduain-Olazaran-Ansorena** | *Leitza (Ariñ-ariña)* |
| **Tomás Garbizu** | *Baztan* |
| **Herrikoak-mold. J. I. Ansorena** | *Lesakako Dantza* |
| | *1. Zubigainekoa ta zeharkakoa* |
| | *2. Tantirumailo* |
| | *3. Bandera arbola* |
| | *4. Zantzo monona* |
| **Francisco Escudero** | *Gure Kabiaren Ereserkia* |
| | *Biribilketa* |

Errenteriako Udal Txistulari Taldea

**Xabier Vesga,** zuzendaria



catalogo Musikaste5.indd 8 23/04/12 15:34

2012-V-13

igandea
domingo

# igande jarduna
# jornada dominical

## *Banda kontzertua*

**Foru Enparantzan, 13:30ean**




**Francisco Escudero** *Irrintzi*
**Primitivo Azpiazu** *Guadix*
**José Antonio San Miguel** *Out of context*[1]
**Jesús Eguiguren** *Eszenak eta Ipuinak*[2]

[1] Estreinaldi nagusia. Obra mejor valorada de los autores miembros de Musikagileak en el I Concurso Internacional de Composición para Bandas de Música "Musikagileak".

[2] Estreinaldi nagusia. 1er premio del I Concurso Internacional de Composición para Bandas de Música "Musikagileak".

Pasaiako Portu Berria
Nuevo Puerto de Pasaia

Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Banda

**Aitor Mitxelena Rubio,** zuzendaria



catalogo Musikaste5.indd 9 23/04/12 15:34

# Ana Belén García

www.organosantamaria.org

Andoainen (Gipuzkoa) jaio zen, 1977an, bertan musika ikasten hasi zelarik. Piano ikasketak Donostiako Goi Musika Kontserbatorioan jarraitu zituen, bertan pianoa eta klabezina ikasi zituen, organo gradu erdia Esteban Elizondorekin egin zuelarik. Organo ikasketak Esteban Landartekin bukatu zituen Musikenen. Irakasle askorekin ikasi izan du: Löic Mallié, Jesús Martín Moro, Brett Leighton, Michel Bouvard, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Daniel Roth, Jacques van Oortmerssen, Pieter Van Dijk… Bakarlari zein laguntzaile moduan jaialdi askotan parte hartu izan du bai Frantzian bai Espainian, errepertorio oso zabala duelarik musika barrokotik hasita musika garaikideraino. Organo eta pianoko irakaskuntza lanak Donostiako Santa Maria Basilikako organo-jotzaile tituluarekin (Cavaillé-Coll 1863) uztartzen ditu, baita Andoaingo San Martín de Toursen (Merklin 1907).

*Nace en 1977 en Andoain (Gipuzkoa), donde inicia sus estudios musicales. Prosigue su formación como pianista en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián donde finaliza sus estudios superiores de piano y clavicémbalo así como grado medio de órgano con Esteban Elizondo. Finaliza sus estudios de órgano con Esteban Landart en Musikene. Completa su formación con diversos profesores como Löic Mallié, Jesús Martín Moro, Brett Leighton, Michel Bouvard, Louis Robilliard, Montserrat Torrent, Daniel Roth, Jacques van Oortmerssen, Pieter Van Dijk…*

*Ha participado como solista y acompañante en diferentes festivales tanto en Francia como en España interpretando un repertorio que abarca desde la música barroca hasta la contemporánea.*

*Compagina su labor de profesora de órgano y piano con la de organista titular de la Basílica Santa María de San Sebastián (Cavaillé-Coll 1863) y San Martín de Tours de Andoain (Merklin 1907).*

# Coral Andra Mari Abesbatza

www.coralandramari.com

1966. urtean José Luis Ansorenak sortu zuen. 1994 urtean José Manuel Tife zuzendari izendatu zuten eta berak dihardu lan horretan gaur egun ere. Hainbat txapelketetan parte hartu izan du eta Madrilen, Bartzelonan, Sevillan, Tenerifen emanaldiak eskaini ditu, eta Peralada, Santander, Granada eta Donostiako jaialdietan parte hartu izan du. Euskadiko Orkestra sinfonikoarekin, Bilbokoarekin, Espainiako Nazionalarekin, Tenerifekoarekin, Galiziakoarekin, Scottish Chamber Orchestrarekin, Buenos Aireseko Filarmonikarekin, XVIII. mendeko orkestrarekin eta Cadaqueseko Orkestrarekin elkarrekin lan egin du, eta Brüggen, López Cobos, Ros Marbá, Juanjo Mena edo Victor Pablo Pérez-en zuzendaritzapean emanaldiak eskaini dituzte. Europako hainbat herrialdetan eta Argentinan birak eskaini ditu eta zenbait disko grabatu ditu. Koru musikan genero guztiak lantzen ditu, operak eta zartzuelak barne, euskal musikan espezializatua badago ere. Errenterian, Musikaste jaialdia antolatu zuen, urtero antolatzen den Euskal Konposagileen astea, eta baita Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa ere.

*Fue fundada en 1966 por José Luis Ansorena. En 1994 asume su dirección José Manuel Tife, quien continúa al frente de la misma. Ha conseguido numerosos premios en concursos y actuado en Madrid, Barcelona, Sevilla, Tenerife y en los festivales de Peralada, Santander, Granada y San Sebastián, entre otros. Ha colaborado con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la de Bilbao, Nacional de España, Tenerife, Galicia, Scottish Chamber Orchestra, Filarmónica de Buenos Aires, Orquesta del siglo XVIII y la Orquesta de Cadaqués, con directores como Brüggen, López Cobos, Ros Marbá, Juanjo Mena o Victor Pablo Pérez. Ha realizado giras por varios países europeos y Argentina, y grabado varios discos. Cultiva todo género de música coral, incluidas óperas y zarzuelas, estando especializada en la música vasca. Creó, en Errenteria, el festival Musikaste, Semana de Compositores Vascos que se celebra anualmente, así como Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboa-Archivo Vasco de la Música.*



catalogo Musikaste5.indd 10 23/04/12 15:34

# Errenteriako Udal Txistulari Taldea

Errenteriako Udal Txistulari talde berria 2003ko ekainean eginiko oposaketen ondoren sortu zen, nahiz urte berdineko uztailean hasi zen martxan. Txistu taldea honako hauek osatzen dute: Xabier Vesga (1go txistua eta zuzendaria), Olatz Oliveri (2. Txistua), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabalaria).

Txistu taldeak eginkizun desberdinak ditu: igandero herriko auzo desberdinetan bere hots gozoaz esnatzen gaituzte, hilean behin kontzertua eskaintzen dute Udaletxeko arkupetan, Inauterietako diana goiztiarrak, korporazioak, San Juan bezperako aurreskua, Madalenetako prozesioak, buruhandi eta erraldoiak, eta abar luze bat.

Ekintza horietaz gain, herriko beste ekintza eta festetan parte hartzen du. Gainera, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzen du beste herrialdetako udal txistu eta txistulariekin batera.

*La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones y empezó su andadura en Julio del mismo año. El grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1º), Olatz Oliveri (txistu 2º), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabalero).*

*La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos, etc.*

*Además de estas actividades también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.*

# Errenteriako Musika Kultur Elkarteko Banda

1864an sortu zen Errenterian lehenengo Banda elkartea "La Sociedad Filarmónica" izenaz eta urte berean udal erakunde bihurtu. 1899az geroztik Musika Banda izena hartu du. 1916an Jose Maria Iraolak hartu zuen eta hobetu egin zuen. 1918an Udal Musika Akademia sortu zen musika-tresna jole berriak sortzeko eta bide batez, banda hornitzeko. 1928an Julian Lavilla etorri zen Errenteriara eta bandan sartu zen irakasle eta musika lanetan. Horrek maila artistiko hobea eman zion Bandari. 1936an banda desegin zenean, 1948an Errenteriako Musika Kultur Elkartea sortu zen eta antzinako bandaren kideak bildu zituen Jose Maria Iraolaren zuzendaritzapean. Hainbat txapelketetan saritua izan da. 2006ko urriaz geroztik Aitor Mitxelena eta Carlos Rodriguez dira zuzendariak.

*En 1864 fue fundada en Errenteria la primera agrupación de Banda con el nombre de "La Sociedad Filarmónica", convirtiéndose en entidad municipal en el mismo año y llamándose Banda de Música a partir de 1899. Desde 1916 fue dirigida por José Mª Iraola, adquiriendo mayor calidad. En 1918 se fundó la Academia Municipal de Música con el objetivo de nutrir a la banda de nuevos instrumentistas.*

*En 1928 llegó a Errenteria Julián Lavilla, que se incorporó a la Banda como profesor instrumentista, dándole un mayor nivel artístico. Tras la disolución de la Banda en 1936, en 1948 se creó la Asociación de Cultura Musical de Errenteria, que reunió a los antiguos componentes de la Banda, bajo la dirección de José Mª Iraola. Ha sido galardonada en diversas competiciones. Desde octubre de 2006 son directores titulares Aitor Mitxelena y Carlos Rodríguez.*



catalogo Musikaste5.indd 11 23/04/12 15:34

# baterako ekintzak
# actividades paralelas



Alos Quartet
(Musikaste 2011)

## KONTZERTU DIDAKTIKOAK (17-18)

Errenteriako Lhko ikastetxeetako ikasleentzat
Adina: Lhko 3., 4., 5. eta 6. mailak (8/9 eta 11/12 urte bitartekoak)

PERKUSIO FAMILIAREN INSTRUMENTOAK

### ATTAKA PERKUSIO TALDEA

**Jesus Mª Garmendia**, zuzendaria

## MUSIKA ESKOLEN EMANALDIAK (14-18)

2012ko maiatzaren 14, astelehenetik, 18 ostiralera
Xabier Olaskoaga Enparantza
18:30tik – 19:15era

Errenteria Musikal eta Lezoko Tomas Garbizu Musika Eskolako dantza eta talde instrumentalen emanaldiak.

## CONCIERTOS DIDÁCTICOS (17-18)

Dirigido a los alumnos de primaria de las escuelas, colegios e ikastolas de Errenteria
Edades: 3º, 4º, 5º y 6º de Primaria (entre 8/9 y 11/12 años)

INSTRUMENTOS DE LA FAMILIA DE PERCUSIÓN

### ATTAKA PERKUSIO TALDEA

**Jesus Mª. Garmendia**, director

## ACTUACIONES DE LA ESCUELA DE MÚSICA (14-18)

Lunes 14 al viernes 18 de mayo de 2012
Xabier Olaskoaga Enparantza
18:30 – 19:15 horas

Actuación de grupos instrumentales y de danza de Errenteria Musikal y Tomas Garbizu Musika Eskola de Lezo.



# egitarauak

# programas



catalogo Musikaste5.indd 13 23/04/12 15:34

## *MUSIKENE, futuro de la "música contemporánea"*

*En el otoño del año 2001 se iniciaba el primer curso escolar del nuevo Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene. Diez años, diez promociones de titulados han salido de las aulas de la institución. Entre ellos destacan los creadores, los alumnos del departamento de composición. Musikaste ya presentó en 2006 las primeras generaciones. En 2012 se presentan las más recientes generaciones de compositores formados en Musikene.*



Sigma Project
(Musikaste 2011)


Íñigo Bregel (p. 44)
Paula Álvarez (p. 40)
Carlos Trujillo (p. 53)
Miguel Matamoro (p. 51)
Rubén Cid (p. 45)
Ignacio Ferrando (p. 48)

2012-V-14

astelehena, 20etan - "Errenteria Hiria" Kulturgunea
lunes, 20 horas - Centro Cultural "Villa de Errenteria"

# musika garaikidea
# música contemporánea

**Iñigo Bregel** *Tied connection**
*viola solo, contrabajo solo, fl (picc), ob, cl (clb), tpt, trb, perc*

**Paula Alvarez** *Soledad**
*[Uno entre tantos]*
*[Hacerse oír]*
*clarinete en la solo, fl, ci, fg, guit, vn, va, vc*

**Carlos Trujillo** *no busques en el fondo, el reflejo del agua**
*fl en sol, perc, vn, va, vc, cb*

**Miguel Matamoro** *Eixésese III**
*cl, vc, pno*

**Rubén Cid** *Stella**
*fl, cl, fg, perc, pno, vn, va, vc*

**Ignacio Ferrando** *Ritual**
*fl (picc), cl (clb), fg, perc, pno, vn, va, vc*

* Estreinaldi nagusia

musikene

Conservatorio de Música
Juan Crisóstomo de Arriaga
Musika Kontserbatorioa

## Ensemble KURAIA

Xabier Calzada, flautak (fl)
Aintzane Barona, oboea (ob)
adar ingelesa (ci)
Sergio Barranco, klarineteak (cl)
Janire Lagunilla, fagota (fg)
Esther López, tronpeta (tpt)
Iker Marañon, tronboia (trb)

Elur Arrieta, perkusioak (perc)
Eugenio Tobalina, kitarra (guit)
Berta Fresco, pianoa (pno)
Enekoitz Martínez, biolina (vn)
Ricardo Cuende, biola (va)
Belén Fernández, biolontxeloa (vc)
Gaizka Jauregui, kontrabaxua (cb)

**Andrea Cazzaniga**, zuzendaria
María Eugenia Luc, artistiko zuzendaria



catalogo Musikaste5.indd 15 23/04/12 15:34

# Ensemble Kuraia

www.ensemblekuraia.es

1997ko apirilean Bilbon sortutako Musika Garaikideko Taldea da Kuraia eta musika garaikide klasikoaren arloan maila eta gaitasun handiko profesionalez (musikagileak, zuzendariak eta musika-joleak) osatua.

Ensemble Kuraiak errepertorioaren arabera musikarien kopurua aldatzen du. Ensembleko kideen teknika aparta izateaz gain musika kalitate sakonak ditu, taldekideek bakarlari moduan zein profesional mailan izandako ibilbide egonkorrak egiaztatzen duelarik.

Ensemble Kuraiak Espainian eta Espainiatik kanpo eskaintzen ditu emanaldiak, kritikoen eta publikoaren oniritzia jaso duelarik. Eskaini dituen azken emanaldietatik jaialdi eta musika garaikidearen ziklo hauek azpimarratu daitezke: Lima, Malaga, Gasteiz eta Bilbo.

"Luis de Pablo: evolución hacia el siglo XXI" eta "Homenaje a Félix Ibarrondo" dokumentalen errealizazioan parte hartu zuen. Kontzertu monografikoak eskaini izan ditu, eta zenbait musikagilerekin lan egin izan du: Luis De Pablo, Joan Guinjoan, Félix Ibarrondo, José Manuel López López eta Gabriel Erkoreka.

Kameratako opera eta antzerki musikalen obren ekoizpen berrien estreinaldiak bultzatu izan ditu, beste batzuen artean, XX. mendeko obra nagusiak aurki ditzakegularik: Strawinskiren "La historia de un soldado" edo Ullmannen opera "Der kaiser von Atlantis". Ensemble Kuraiak egungo konposagileei eskatzen dizkie lanak eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera musika garaikidearen difusiorako programak garatzen ditu.

Ensemble Kuraiaren lanak Radio Nacional de Españak (RNE) eta EITBk grabatu eta transmititu izan dituzte. Pierre Strauch, Manlio Benzi eta Juanjo Mena bezalako solista eta zuzendariek Ensemble Kuraiarekin lan egin izan dute.

*El Ensemble Kuraia de Bilbao fue fundado en 1997 por la compositora María Eugenia Luc, su actual directora artística. El conjunto tiene como prioridad difundir las obras de los compositores de nuestro tiempo y dotarles de un conjunto profesional de calidad con el cual colaborar estrechamente.*

*Ensemble Kuraia adopta una formación variable en número de músicos, según las exigencias del repertorio. Los miembros del ensemble destacan por la brillantez de su técnica y profundas cualidades musicales contrastadas por una sólida trayectoria profesional y solística.*

*Ensemble Kuraia es la agrupación residente del Festival Klem-Kuraia y del Conservatorio "J.C.Arriaga" de Bilbao. Participa en festivales y ciclos de música como Festival de Música de Alicante, Milán, Ciudad de México (Centro Nacional de las Artes), Madrid (Auditorio del Museo Reina Sofía), Hochschule für Musik-UdK (Berlín). Algunos de estos conciertos han sido transmitidos en directo por RNE-Radio Clásica.*

*Ensemble Kuraia se distingue por la versatilidad e innovación de sus propuestas. Ha impulsado la realización de documentales sobre Luis De Pablo y Félix Ibarrondo (programados en varias ocasiones por EITB), además de estrenar producciones de óperas de cámara y de obras de teatro musical, entre las cuales destacan "La historia del soldado" de Stravinski y la ópera del compositor checo Viktor Ullmann "Der Kaiser von Atlantis". Recientemente ha grabado el DVD "Hamar" (sello Sintonía), con obras de Gabriel Erkoreka.*

*Ensemble Kuraia realiza encargos a los compositores y desarrolla programas y proyectos pedagógicos en colaboración con el Museo Guggenheim de Bilbao, la Universidad del País Vasco (UPV-EHU) y el Conservatorio "J.C. Arriaga" de Bilbao.*

*Ensemble Kuraia recibe el apoyo de INAEM, Gobierno Vasco, Instituto Etxepare, Diputación Foral de Vizcaya, Ayuntamiento de Bilbao.*



catalogo Musikaste5.indd 16 23/04/12 15:34

# Andrea Cazzaniga

Orkestrako zuzendaria, biolinista eta konposagile italiarra da. Egungo musika garaikidea interpretatzea eta jakitera ematea da bere helburu nagusienetakoa.

Egun, Espainian bizi da. Bilboko Ensemble Kuraia eta Bilboko Kontserbatorioko orkestraren zuzendaria da.

Espainiar konposagileek talde horrentzat egindako obra askoren estreinaldiak zuzendu ditu, eta baita XX. mendeko maisu handiek egindako lanak ere. Espainia, Italia, Finlandia eta Holandako orkestra eta talde ugari zuzendu ditu, beste batzuen artean Galiziako Orkestra Sinfonikoa, Musikeneko Euskal Herriko Goi Mailako Zentroko Orkestra Sinfonikoa, E5 Kuopio Festival Orchestra, Panula Foundation Orchestra eta Orchestra Filarmonica di Trento.

EMI- Hispavox zigiluarentzat "El bosque animado" (2002ko Goya saria) filmaren soinubanda grabatu du, eta Radio Clásica-RNE-rentzat Felix Ibarrondo konposagilearen omenez egindako kontzertua. Ensemble Kuraiaren buru, Strawinsky-ren "Historia de un Soldado" zuzendu du, antzeztua eta jatorrizko bertsioan (Alauda Teatro, Burgoseko konpainiaren ekoizpena) eta hainbat espainiar hiritan eskainitako kontzertu ugari.

Joan Panularekin, Enrique García Asensiorekin eta Josep Caballérekin zuzendaritzako ikasketak egin zituen Donostiako Musikeneren goi mailako zentroan, 2007an bukatu zituelarik. Bere formazioa hobetu zuen Jorma Panularekin Amsterdamen eta Kupion, eta Arturo Tamayorekin Alcalá de Henareseko Unibertsitatean.

*Reside en Bilbao y es director musical del Ensemble Kuraia. Además de dedicar gran parte de su actividad a la interpretación de la música contemporánea, Andrea Cazzaniga posee un amplio repertorio sinfónico y operístico. Ha dirigido orquestas y conjuntos en España, Italia, Finlandia, Holanda y América Latina entre las cuales destacan la Sinfónica de Bilbao, Vaasa City Orchestra, Sinfonia Finlandia, Orquesta Sinfónica de Musikene, la Orquesta de Cámara de Trento, E5 Kuopio Festival Orchestra. También ha colaborado con solistas de renombre como el chelista Asier Polo.*

*Ha dirigido en importantes festivales internacionales entre los cuales destacan: Festival de Música de Alicante, Musika-Música de Bilbao y el FIMCC de Lima.*

*En el campo cinematográfico, dirigiendo a la Orquesta Sinfónica de Galicia, ha grabado, para el sello EMI- Hispavox, la banda sonora de la película "El bosque animado" (Premio Goya 2002).*

*Andrea Cazzaniga desarrolla también una destacada labor docente a través de conferencias y cursos de dirección e interpretación de la música contemporánea en Europa y América. Desde 2008 hasta 2010 se ha desempeñado como director de las orquestas de cuerdas y sinfónica del conservatorio "J.C.Arriaga" de Bilbao.*

*Fue seleccionado en los concursos internacionales de dirección de orquesta "Pedrotti" (2004) y "Panula" (2009).*



catalogo Musikaste5.indd 17 23/04/12 15:34

## Mujeres compositoras, mujeres intérpretes

*La celebración del centenario de Mª Victoria Figuerido nos ayuda a desvelar la existencia de una generación de compositoras formadas en la primera mitad del siglo XX: Emma Chacón, nacida en Barcelona y creadora en Bilbao; Emiliana Zubeldia nacida en Pamplona, creadora en París, Nueva York y Hermosillo (México); y Mª Victoria Figuerido en Donostia. Su música será interpretada por una sólida generación de mujeres intérpretes.*



Coral de Cámara de Pamplona
(Musikaste 2011)

Mª Victoria Figuerido (p. 48)
Emma Chacón (p. 45)
Sabin Salaberri (p. 52)
Tomás Garbizu (p. 49)
Emiliana Zubeldia (p. 53)

2012-V-15

asteartea, 20etan - "Errenteria Hiria" Kulturgunea

martes, 20 horas - Centro Cultural "Villa de Errenteria"

# ganberako musika

# música de cámara

**Mª Victoria Figuerido** *Minueto*
*La muñeca de Nitouscha*
*Danza india*
*Capricho español*

**Emma Chacón** *Rasgueo nº 2, op. 68*
*Rasgueo nº 3, op. 69*
*Evocaciones españolas*
*nº 1, op. 75*
*nº 2, op. 77*
*nº 3, op. 80*

**Sabin Salaberri** *Bart hamarretan*
*Eresia (hitzak, "Basarri")*
*Egunen batean (hitzak, Eusebio Osa)*

**Tomás Garbizu** *Del camino (hitzak, Antonio Machado)*
*La fuente de piedra (hitzak, Antonio Machado)*

**Emiliana Zubeldia** *Que soy blanca rosa (hitzak, Ana de Mairena)*
*El primer día (hitzak, Ana de Mairena)*

**Emma Chacón** *Madrigal*
*No llores*
*Quisiera*
*Copla de Albaicín*
*Gitanillo*

**Mª Victoria Figuerido** *Noche andaluza*

Nora Bolinaga, biolina
Carmen Ayastuy, mezzosopranoa
Susana García de Salazar, pianoa



catalogo Musikaste5.indd 19 23/04/12 15:34

# Carmen Ayastuy

Bergaran (Gipuzkoa) jaio zen, oso gaztea zenean Gasteizera bizitzera joan zelarik. Bere musika ibilbidea hiru ildotan jorratu zen: pianoaren interpretazioa, pedagogia, Gazteizko "Luis Arambru" Udal Musika Eskolan pianoko irakasle moduan, eta ahots interpretazioa.

Rosa Sabater, Joaquin Achucarro, Louis Hiltbrand eta Malcom Fragerrekin klase magistralak jaso ostean, pianoarekin bakarlari moduan eta abeslarien laguntzaile modua, emanaldiak eskaini izan ditu. Piano-jotzaile karreran, Ricardo Requejorekin lied-a ikasteak, kantua ikastera bultzatu zuen.

Kantuaren goi mailako ikasketak María Angeles Rodríguez-en eskutik gailendu zituen, ikasketak Lucia Meewsen eta Maria Coronada Herrera-rekin areagotu zituelarik. Bere errepertorioak hainbat musikagileren obrak biltzen ditu, esate baterako: Brahms, Schubert, Schumann, Mahler, Dvorak… Liedean espainiar eta frantses musika, eta Bach, Vivaldi, Pergolesi eta Mendelssohn oratorioan. Jesus García Leoz-en monografikoak egin izan ditu, bai eta argentinako hainbat konpositoreena ere.

*Nace en Bergara (Gipuzkoa), residiendo desde temprana edad en Vitoria-Gasteiz. Su trayectoria musical se orienta en tres direcciones: la interpretación pianistica, la pedagógica, que ejerce como profesora de piano de la Escuela Municipal de Música "Luis Aramburu" de Vitoria-Gasteiz, y la interpretación vocal.*

*Tras recibir clases magistrales de Rosa Sabater, Joaquin Achucarro, Louis Hiltbrand y Malcom Frager, ha ofrecido al piano recitales como solista y como acompañante de cantantes. En su carrera como pianista, el estudio del lied con Ricardo Requejo le lleva al estudio del canto.*

*Culmina los estudios superiores de canto de la mano de María Angeles Rodriguez, ampliando estudios con Lucia Meewsen y Maria Coronada Herrera.*

*Su repertorio consta de obras de Brahms, Schubert, Schumann, Mahler, Dvorak..., canción francesa y música española en lied, y Bach, Vivaldi, Pergolesi y Mendelssohn en oratorio. Ha realizado monográficos sobre Jesús Garcia Leoz así como sobre compositores argentinos.*

# Nora Bolinaga

4 urtekin hasi zen pianoa ikasten, Suzuki metodoarekin Ana María Sebastián-ekin hasi zelarik. Lyon-en, Sión-en (Suitza) eta Berlinen hainbat Suzuki ikastaro egin izan ditu. Urte horietan zehar piano ikasketak ere egin zituen. V. Martín, G. Nicolescu, L. Sistiakov, R. Daugareil eta M. Léfévre irakasleekin ikasi zuen, eta hainbat sari eta domina irabazi izan ditu. 1999 eta 2003 bitartean, K. Wataya-rekin Utrecht-eko Hogescholls voor Kunsten-en ikasi zuen.

Hainbat ikastarotan ere parte hartu izan du. EGO (1997-1998), JONDE (1997-2000) eta EUYO (2000-2002) gazte orkestretakoo kide izan da. Galdakao eta Durangoko Musika Eskoletan irakasle izan da. Hainbat orkestrekin lan egin izan du, esate baterako: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Nafarroako Sinfonikoa, Gaztela eta Leon-ekoa, Siglo XXI Ganberako Orkestra, eta Utopia Ganberako Orkestra. 2003az geroztik Bilboko Orkestra Sinfonikoko kide da.

*Comienza sus estudios de violín a la edad de 4 años, iniciándose en el método Suzuki con Ana Maria Sebastián. Ha participado en diversos cursos Suzuki en Lyon, Sión (Suiza) y en Berlín. Durante estos años también cursó estudios de piano. Tras estudiar con los profesores V. Martín, G. Nicolescu, L. Sistiakov, R. Daugareil y M. Léfévre, ha obtenido diversos premios y medallas. Entre 1999 y 2003 estudió con K. Wataya en el Hogescholls voor de Kunsten en Utrecht. Ha participado igualmente en diversos cursos. Ha sido miembro de las jóvenes orquestas EGO (1997-1998), JONDE (1997-2000) y EUYO (2000-2002).*

*Tiene experiencia docente en la Musika Eskola de Galdakao y Durango. Ha colaborado con las orquesta de Euskadi, Sinfónica de Navarra, de Castilla y León, Orquesta de Cámara siglo XXI y Orquesta de cámara Utopía. Desde el 2003 es miembro de la Orquesta Sinfónica de Bilbao.*



catalogo Musikaste5.indd 20 23/04/12 15:34

# Susana García de Salazar

Gasteizen jaio zen, eta bertan gradu erdiko ikasketak amaitu zituen A. Nietorekin. Geroago, Basileako (Suitza) Musikhochschule-n ikasi zuen , P. Efler eta A. Oetiker-ekin pianoa, A. Guttman-ekin errepertorioa eta I. Monyghetti-rekin ganbera. Espainiara itzultzean, R. Requejo piano-jotzailearekin jarraitu zuen.

Euskadiko Gazte Orkestrako piano jotzaile titularra izan zen 1999an. Hainbat eszenatokitan parte hartu izan du: Txillidalekun Musika Hamabostaldiaren baitan, Donostiako Kursaalean, Euskalduna Jauregian, Bilboko Arriaga Antzokian, Gasteizko Antzoki Nagusian, Valladolid-eko Teatro Lope de Vegan, Salamanca-ko Auditorio Fonseca-n, Madrilgo Teatro de la Zarzuela-ko Lied-aren Zikloan, Suizako Basileako Grosser Saal-en, Nantes eta Lisboako Festival Folle Journé-n, Tourseko (Frantzia) Tourraine-ko Musika Asteetan, edo Monty-ko (Belgika) Jaialdian.

*Nace en Vitoria-Gasteiz, donde finaliza sus estudios de grado medio con A. Nieto, ampliándolos en la Musikhochschule de Basilea (Suiza), así como con P. Efler y A. Oetiker en piano, A. Guttman en correpetición y I. Monyghetti en cámara. A su regreso a España continúa trabajando con el pianista R. Requejo.*

*Ha sido pianista titular en la Joven Orquesta de Euskal Herria (E.G.O) en 1999. Ha tocado en Chillida Leku dentro de la Quincena Musical, Kursaal de San Sebastián, Palacio Euskalduna y Teatro Arriaga de Bilbao, Teatro Principal de Vitoria, Teatro Lope de Vega de Valladolid, Auditorio Fonseca de Salamanca, Ciclo de Lied del Teatro de la Zarzuela de Madrid, Grosser Saal de Basilea en Suiza, Festival Folle Journé de Nantes y Lisboa, Semanas Musicales de Tourraine en Tours (Francia) o Festival de Monty (Bélgica).*







Magios Ensemble
(Musikaste 2011)



catalogo Musikaste5.indd 21 23/04/12 15:34

## NAVARRA 1512
### *La encrucíjada*

*La canción de Santiago –Pelegria naizela– se convierte en canción-guía que recorre caminos diversos: También en 1512, año que se convierte en encrucijada de espacios y tiempos. Espacios como villas y ciudades, iglesias y catedrales, reales capillas o el andante camino de los peregrinos. Tiempos de expansión y consolidación de territorios, del ocaso de la edad media y del nacimiento de la nueva cultura humanista del renacimiento.*



Lauder Ensemble
(Musikaste 2011)

Juan de Anchieta (p. 41)
Juan García de Basurto (p. 49)

20012-V-16

asteazkena, 20etan - "Errenteria Hiria" Kulturgunea
miércoles, 20 horas - Centro Cultural "Villa de Errenteria

# antzinako musika

# música antigua

## NAVARRA 1512

**Bidegurutzea - La encrucijada**

*Gran Canción de Santiago-Dum Pater familias (Codex Calixtinus, s. XII - s. XV)*

### Híríbílduak eta híríak - Víllas y cíudades

**M. Praetorius (1571-1621)** *Le Canarie*
**J. de Anchieta (1462-1523)** *Con amores, la mi madre*
**Anónimo (c. 1500)** *Propiñan de melyor*
**Anónimo (s. XV)** *Une mousse de Biscaye*
**Anónimo (Cancionero Musical de Palacio)** *Rodrigo Martines*

### Elízak eta katedralak - Iglesías y catedrales

**Anónimo (Cancionero de Peregrinos)** *Chanson de St. Jaques*
**Anónimo (s. XVI)** *Hymnus de commune (Catedral de Pamplona)*
**J. de Anchieta** *Congratulamini mihi omnes*
**J. García de Basurto (1480-1547)** *Angelus Domini*

### Kapera errealak - Capíllas reales

**Anónimo (Manuscrit de Foix)** *Air et Chanson de St. Jaques en couplets*
**P. Sandrin (c. 1490-1561)** *Douce Memoire (Frantziako Francisco I-ri egokitutako poesia)*
**Anónimo (Francia, s. XVI)** *La Navarroise*
**F. de la Torre (c. 1483-1504)** *Danza Alta (sobre "La Spagna")*
**Anónimo (Cancionero Musical de Palacio)** *Zut egon, ezin geldirik egon*
**A. Mudarra (c. 1510-1580) - Anónimo inglés (s. XVI)** *Conde Claros inglés*

### Artísauak eta erromesak - Artesanos y peregrínos

**Anónimo (Cancionero Musical de Palacio)** *La Tricotea*
**J. de Anchieta** *Dos ánades madre*
**M. Flecha (¿)(Cancionero de Uppsala)** *Falalalán*
**Anónimo (Cancionero Musical de Palacio)** *Jançu Janto*
**Anónimo** *Chanson de St. Jaques - Pelegria Naizela*

DIATESSARON ENSEMBLE

Mercedes Hernández, sopranoa
Juan Vega, flautak
Rafael Bonavita, vihuela
Elena M. de Murguía, viola da gamba, zuzendaritza



catalogo Musikaste5.indd 23 23/04/12 15:34

# Diatessaron Ensemble

www.ensemblediatessaron.org

Adiskidetasunak eta interes komun batek lotzen gaituzte bide berriak esperimentatu eta aurkitzeko, gaur egun interpretazio historikoa zerbait bizirik eta esangura duena izan dadin. Izan ere, musika mintzaira unibertsala da, mugak eta mendeak zeharkatzen dituena, gizakien arima sakon eta zuzen jotzearren.

XVI. mendetik XVIII. Mendera bitarteko musikan espezializaturiko artista garenez, ahantzitako, ezezagun edo gure ondareko errepertorio ederra berreskuratzea interesatzen zaigu, eta, baita beste kultura batzuetako errepertorioekiko loturak ere.

Parte hartu dugu Arnagako (Frantzia) kontzertuetan, Ordiziako "Musika Barrokoaren XVIII. Zikloan", "Donostiako Musika Hamabostaldian", "San Telmo Museoan", "Miramongo Maitinetan", Oñatiko XVIII. Musika Jardunaldietan", "Txillida Lekun", "Escena de Navarra" jaialdian, Bilboko Bach is Back "Musika,Músican"…

Era berean, "Le Basque" musika eta dantza barrokoa ikuskizunarekin, Musikaste 2005ean estrainatu zen eta NBn grabatu zutena, kontzertu ugari eman ditugu.

*Nos une la amistad y un interés común por experimentar y descubrir nuevos caminos, que hagan de la interpretación histórica algo vivo y con sentido hoy en día, puesto que la música es un lenguaje universal que atraviesa fronteras y siglos, llegando siempre a lo más profundo y directo del alma humana.*

*Como artistas especializados en la música del s. XVI al XVIII, interpretada con instrumentos originales, nos interesa rescatar un repertorio olvidado, inédito o simplemente bello de nuestro patrimonio, y sus conexiones con repertorios de otras culturas.*

*Hemos participado en los conciertos de "Arnaga" (Francia), en el "XVIII ciclo de Música Barroca " de Ordizia, en la "Quincena Musical de San Sebastián", "Museo San Telmo" , " Matinées de Miramon", "XVIII Jornadas Musicales de Oñate", " Chillida Leku", Festival "Escena" de Navarra, "Musika-Música" Bach is Back de Bilbao…*

*Con el espectáculo de música y danza barrocas "LE BASQUE", estrenado en Musikaste 2005 y grabado en el sello NB, hemos dado numerosos conciertos.*

# Mercedes Hernández

Santiagon jaio zen. Kantua ikasi zuen, antzinako musikako espezialitatean, Toulouse-n (Frantzia), Trossingen-en (Alemania), eta Basilean (Suitzan), G. Laurens, R. Levitt, M. Figueras, N. de Figueiredo eta R. Jacobs-ekin.

Hainbat kontzertu eta grabaziotan parte hartu izan du, talde askorekin: La Capella Reial de Catalunya (J. Savall, zuz.), Le Parlement de Musique (M. Gester), Ensemble Elyma (G. Garrido), The Harp Consort (A. L. King), edo La Fenice (J. Tubery).

Santiagon Resonet taldea sortu zuen, Fernando Reyes laute-jotzailearekin. Tonos de Amor grabatu zuen, José Marín-en (XVII m.) ahots eta gitarrarako abestiak biltzen dituenak.

2002an, Bartzelonako Gran Teatre del Liceu-n debuta egin zuen eta, geroago, Vienan, Graz-en, Ginebra-n, Bonneville-n edo Basilean, rol ezberdinak egin zituen.

*Nace en Santiago de Compostela. Estudia canto, especializándose en música antigua, en Toulouse (Francia), Trossingen (Alemania) y en Basilea (Suiza), con G. Laurens, R. Levitt, M. Figueras, N. de Figueiredo y R. Jacobs.*

*Colabora en conciertos y grabaciones con grupos como La Capella Reial de Catalunya (dir. J. Savall), Le Parlement de Musique (M. Gester), Ensemble Elyma (G. Garrido), The Harp Consort (A. L. King), o La Fenice (J. Tubery).*

*Funda el grupo Resonet con el laudista Fernando Reyes en Santiago de Compostela. Graba Tonos de Amor dedicado a las canciones para voz y guitarra de José Marín (S. XVII).*

*En 2002 debuta en el Gran Teatre del Liceu de Barcelona defendiendo posteriormente diferentes roles en Viena, Graz, Ginebra, Bonneville o Basilea. Con el pianista Manuel Burgueras recupera las canciones de Martín y Soler. Ha impartido cursos de canto en Santiago de Compostela, Barcelona, Freiburg (Alemania) y La Habana.*



catalogo Musikaste5.indd 24 23/04/12 15:34

# Juan Vega

Jaiotzez donostiarra, txistua Jose Ignazio Ansorenarekin ikasi zuen kontserbatorioan. Flauta eztia J.M. Saperas-ekin ikasi zuen Bartzeonan, beranduago L. Izquierdo, A. Cirilo, E. Schmied, M. Miessen, P. Leenhouts eta P. Memelsdorf-ekin ikasi zuelarik.

Hainbat ziklotan parte hartu du eta txistu hirukote eta perkusioko bi disko grabatu ditu Guridi, Sorozabal eta Usandizagaren musikekin, zuzendaritza artistikoa bere gain hartu zuelarik. Egun, Donostiako Udal Musika Eskolako flauta eztia eta txistuko irakasle da, eta Donostiako Udal Txistu Bandako kide da.

*Natural de San Sebastián, estudia txistu en el conservatorio con Jose Ignacio Ansorena. Estudia flauta de pico con J.M. Saperas en Barcelona, perfeccionando con L. Izquierdo, A. Cirilo, E. Schmied, M. Miessen, P. Leenhouts y P. Memelsdorf.*

*Ha actuado en diversos ciclos y grabado dos discos para trío de txistus y percusión con música de Guridi, Sorozabal, Usandizaga…, asumiendo la dirección artística. En la actualidad es profesor de flauta de pico y txistu en la Escuela Municipal de Música de San Sebastián y miembro de la Banda Municipal de txistularis de San Sebastián.*

# Rafael Bonavita

Uruguai-n jaio zen, eta Basileako (Suitza) Schola Cantorum-en pultsatutako antzinako harizko instrumentuetan diplomatu da.

Urte askotan Jordi Savall, Marc Minkowski edo René Jacobs-ekin lan egin ostean, bakarlari jardun zuen eta pedagogia proiektuak Europa, Asia eta Amerikan zehar garatu zituen, errepertorioan musika garaikidea edo flamenkoa barneratuz.

Egindako grabazioen artean aipagarriak dira Principe delle Muse y Sanz-Murcia, gitarra barrokorako dantzak, Música Moderna, Al compás de la vihuela, eta Bach-Bonavita barroko lauteari buruzkoa.

*Nacido en Uruguay es diplomado en instrumentos antiguos de cuerda pulsada en la Schola Cantorum de Basilea (Suiza).*

*Tras años de colaboración con Jordi Savall, Marc Minkowski o René Jacobs, despliega su actividad solística y proyectos pedagógicos en Europa, Asia y América, ampliando su repertorio a la música contemporánea o al flamenco.*

*Entre sus grabaciones destacan Principe delle Muse y Sanz-Murcia, danzas para guitarra barroca, Música Moderna, Al compás de la vihuela, y Bach-Bonavita con el laúd barroco.*

# Elena Martínez de Murguía

Donostian jaio zen, eta piano eta biolineko formazio klasikoa jaso zituen. Zango biola José Vázquez-ekin ikasi zuen, eta Toulouseko Kontserbatorioan Philippe Pierlot eta Coen Engelhart-ekin ikasi zuen. Hainbat ikastaro egin zituen Jaap ter Lindenekin.

Ensemble Sagitarius, Ensemble Durendal, Iruñeko Katedraleko Kapera, Aula Boreal, La Trulla de Bozes edo la Compagnie Grimaldi (Bordele) taldeetan parte hartu izan du.

Juan Vegarekin sortu zuen "Ensemble Diatessaron" taldea zuzentzen du. 1982az geroztik, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kide titularra da (beso biola).

*Nacida en San Sebastián, recibe una formación clásica en el piano y el violín. Trabaja la viola de gamba con José Vázquez, estudiando en el Conservatorio de Toulouse en la clase de Philippe Pierlot y Coen Engelhart. Se perfecciona en diversos cursos con Jaap ter Linden.*

*Colabora con formaciones como Ensemble Sagitarius, Ensemble Durendal, Capilla de la Catedral de Pamplona, Aula Boreal, La Trulla de Bozes o la Compagnie Grimaldi (Burdeos).*

*Dirige el "ENSEMBLE DIATESSARON". Es miembro titular (viola de brazo) de la "Orquesta Sinfónica de Euskadi" desde 1982.*



catalogo Musikaste5.indd 25 23/04/12 15:34

*Los ángeles guitarristas de la portada barroca de la parroquia de San Miguel Arcángel de Oñati probablemente alimentaron la imaginación del niño José de Azpiazu hasta convertirlo en un decidido apóstol de la guitarra, como intérprete, investigador, editor y compositor. Ecos, estilos, homenajes y nostalgias se entrecruzan en la obra para guitarra de Azpiazu.*



Landarbaso Abesbatza
(Musikaste 2011)

**José de Azpiazu (p. 43)**

20012-V-17

osteguna, 20etan - "Errenteria Hiria" Kulturgunea
jueves, 20 horas - Centro Cultural "Villa de Errenteria"

# ganberako musika
# música de cámara

## José de Azpiazu

**Gaztetako piezak - Piezas de juventud** *(1928-1936)*

*Andante (Pequeñas piezas, 1930)*
*Fugetta (1935)*
*Estudio en Mi (1928)*

**Ikerketa** – *Oñatiko eskuidatzia /* **Investigación** - *Manuscrito de Oñate (s. XVIII)*
*(adaptación para guitarra/ gitarrarako egokitua)*
*La retreta,*
*Minuette en Re*
*Contradanza*

**Sorkuntza – Creación**

*Suite en Do (Ganadora del concurso A.C.I. 1954, Italia)*

**Eskaintzak eta omenaldiak / Dedicatorias y homenajes**

*Tema y variaciones (Homenaje a Sor)*
*Tonadilla. Homenaje a Granados (Dedicada a Andrés Segovia)*
*Noche de San Juan (Texto de Herrera-Petere. Dedicada a Basia Retchitzka)(1)*
*Recuerdo. Tonadilla.(Texto de Herrera-Petere. Dedicada a Pilar Lorengar)(1)*
*Homenaje a Bela Bartok*

**Euskal kantak**

*[Zortziko] [Zure begiek (2)] [Argizagi ederra (2)] [Urrundik (2)]*
*[Bertsolarien abestia] [Adio ene maitea] [Zure bihotza (1)]*
*[Aurra egizu lo (1)] [Sagar dantza]*

musikene

Aída Briceño, sopranoa (1)
Lucía Gómez, mezzosopranoa (2)
Eduardo Baranzano, gitarra

Azalpenak-Comentarios: Xabier Ugarte



catalogo Musikaste5.indd 27 23/04/12 15:34

# Eduardo Baranzano

Montevideon jaioa, gitarran maisu direnekin ikasi zuen. Ikastaroak egin zituen besteei entzundako musikaz, belarriz ateratakoaz, eta berarekin ikasitako ikasle guztiekin perfekzionatu zen.

Toronto, Benicassim, Madrid, Almuñecar eta Mallorcako Palma, Paris, Alcoy eta La Habanako lehiaketetan saritua izan da. EPSA (Argentina), RTVE (España) eta Aus_art (Euskadi) entzat grabatu du.

Gaur egun, "Francisco Escudero" Donostiako Musika Kontserbatorioko irakasle da, AIREAN Euskal Herriko Gitarra elkarteko lehendakari eta Zarauzko Jaialdiko Zuzendari Artistikoa.

Mintzaira eta gitarrako azentu ezberdinak ulertzen saiatzen da musika garaikidetik, folklorikotik, klasikotik eta beste adierazpen modu batzuetatik pasatzen den bide zirkularrari jarraituz.

*Nacido en Montevideo en 1959, estudió con los grandes maestros de la guitarra, realizó cursillos con la música que vio tocar a otros, con la que sacó de oído, y se perfecciona con todos los alumnos que estudian con él.*

*Ha sido premiado en los concursos de Toronto, Benicassim, Madrid, Almuñécar y Palma de Mallorca, París, Alcoy y La Habana.*

*Ha grabado para EPSA (Argentina) RTVE (España) y Aus_art (Euskadi).*

*Es uno de los autores de la primera edición en castellano del Método para guitarra de Fernando Sor.*

*En la actualidad es Profesor en el Conservatorio Superior de Música de Navarra, es titular de la plaza de profesor en el Conservatorio "Francisco Escudero" de San Sebastián, presidente de la Asociación 'AIREAN' de guitarra de Euskadi, y Director artístico del Festival de Zarautz.*

*Intenta comprender los diferentes idiomas y acentos guitarrísticos recorriendo el camino circular que pasa por la música contemporánea, la folklórica, la clásica, y otras formas de expresión.*

# Aída Briceño

Madrilen jaio zen, eta 17 urterekin hasi zen musika ikasten Madrilgo Federico Chueca Udal Musika Eskolan. Madrilgo Arturo Soria Kontserbatorio Profesionalean ikasi zuen Virginia Prietorekin, eta Kantuko Profesional Graduko Titulua lortu zuen.

Bere ikasketak zabaldu sakondu zituen Mabel Perelsteinekin, edo Ian Barr-ekin, era, era berean beste hainbat ikastaro eta mintegitan parte hartu zuen.

Egun, Musikenen, Euskal Herriko Goi mailako Kontserbatorioan egiten ditu Goi mailako kantu ikasketak, Maite Arruabarrena teknika irakaslearekin.

Bakarlari moduan hainbat kontzertu eta eszena ekoizpenetan parte hartu izan du, Madril, Béjar, Bilbo edo Iruñean.

*Nace en Madrid, donde comienza su formación musical a los 17 años en la Escuela Municipal de Música de Madrid Federico Chueca. Estudia en el Conservatorio Profesional de Música Arturo Soria de Madrid con Virginia Prieto obteniendo el Título de Grado profesional de Canto. Amplía sus estudios entre otros con Mabel Perelstein, o Ian Barr, realizando asimismo diversos cursos y talleres.*

*Actualmente estudia Grado superior de Canto en el Conservatorio Superior del País Vasco, Musikene con la profesora de técnica vocal Maite Arruabarrena.*

*Ha tomado parte como solista en numerosos conciertos y producciones escénicas en Madrid, Béjar, Bilbao o Pamplona.*



catalogo Musikaste5.indd 28 23/04/12 15:34

# Lucía Gómez

Donostiarra da mezzo-soprano gaztea, bere musika ikasketak 3 urterekin hasi zituen, eta ahots formazioa biolinaren ikasketekin bateratu zituen. 2009an, Musikenen sartu zen (Euskal Herriko Musikaren Goi Mailako Zentroa) eta Maite Arruabarrenarekin ikasi zuen. Donostiako Orfeoiko kide da eta hainbat abesbatzatan parte hartu izan du: Andra Mari Abesbatza, Peñaflorida Capilla, Intermezzo Abesbatza, Carolina Capella, eta hainbat maisuren zuzendaritzapean abestu izan du, esate baterako: Claudio Abbado, Tugan Shokiev eta Daniel Barenboim, beste beste.

*Joven mezzosoprano donostiarra, comienza su formación musical a los tres años y combina sus estudios de violín con la formación vocal. En el año 2009 ingresa en Musikene (Centro Superior de Música del País Vasco) para formarse con Maite Arruabarrena. Es integrante del Orfeón Donostiarra y colabora con numerosos coros, como la Coral Andra Mari, Capilla Peñaflorida, Coro Intermezzo, Capella Carolina, teniendo así la oportunidad de actuar bajo la batuta de grandes Maestros como Claudio Abbado, Tugan Shokiev y Daniel Barenboim entre otros.*







Jose de Azpiazuren
instrumentu bilduma





catalogo Musikaste5.indd 29 23/04/12 15:34



Andra Mari Abesbatza
(Musikaste 2011)

Miguel Navarro (p. 51)
Francisco Escudero (p. 47)
Valentín de Arín (p. 42)
Alexandre Lesbordes (p. 50)
Mariano Jiménez (p. 50)
Pascual Aldave (p. 40)
Junkal Guerrero (p. 50)
Josu Elberdin (p. 47)

2012-V-18

ostirala, 20:30ean - Fatimako Parrokia

viernes, 20:30 horas - Parroquia de Fátima

# koruen eguna

# día coral

| | |
|---|---|
| **Miguel Navarro** | *1. Surge propera, amica mea* |
| | *2. Salve Regina* |
| **Francisco Escudero** | *3. Canción festiva* |
| **Valentín de Arín** | *4. Aiñhara* |
| **Alexandre Lesbordes** | *5. Eleizatikan* |
| **Mariano Jiménez** | *6. Con tumillu y romeru* |
| **Alexandre Lesbordes** | *7. Oi Kurutzea!* |
| **Pascual Aldave** | *8. Zer egin dizut nere herri?* |
| **Mariano Jiménez** | *9. Ave María* |
| **Alexandre Lesbordes** | *10. Kaiku* |
| **Junkal Guerrero** | *11. Iturengo arotza* |
| **Josu Elberdin** | *12. Cantate Domino* |
| **Francisco Escudero** | *13. Lo hadi aingüria* |
| | *14. Gizon dantza* |




Suessatio Taldea (1, 2)

**Aitor Sáez de Cortázar**, zuzendaria

Ipar Alde Abesbatza (Derio) (3, 4, 5)

**Imanol Ormaza**, zuzendaria

Coral Barañain (6, 7, 8, 9)

**Pello Ruiz Huici**, zuzendaria

Landarbaso Abesbatza (10, 11, 12)

Oier Etxaburu, pianoa

**Iñaki Tolaretxipi**, zuzendaria

Errenteriako Andra Mari Abesbatza (13, 14)

**José Manuel Tife**, zuzendaria



catalogo Musikaste5.indd 31 23/04/12 15:34

# Suessatio Taldea

Araban sortu zen, 2009an. Ahots eta instrumentuen ganbera taldea da. Musika garai ezberdinetako programak landu nahi ditu, obra, gai, proposamen eta formatu berritzaileak eskaini nahian, batzuetan ikus-entzunezko elementuak, antzezlanak,… barneratuz. Aurkezten dituzten obretara hurbildu eta gozarazi nahi dute entzulea, ahalik eta modu sakon eta integralean. Bere ibilbide laburrean aipagarriak dira honakoak: C. Gesualdoren larunbata santuko erresponstsuak, J.S. Bach-en Motete Jesu Meine Freude; C. Monteverdiren antzeztutako Sestina, bai eta Magnificat-aren testuari buruzko programa monografiko historikoa. Hastapenetatik Suessatio taldeko zuzendaria Aitor Sáez de Cortázar Junguitu da.

*Nace en Araba a finales de 2009 como grupo de cámara vocal-instrumental, con la intención de abordar programas de diversas épocas musicales a través de obras, temáticas, propuestas y formatos innovadores, incluyendo en ocasiones elementos multimedia, dramatización, etc. El objetivo es propiciar en el oyente un acercamiento y disfrute lo más profundo e integral posible respecto a las obras presentadas. En su corta existencia destacan los programas dedicados a los Responsorios de Sábado Santo de C. Gesualdo; Motete Jesu Meine Freude de J.S. Bach ; Sestina dramatizada de C. Monteverdi, así como el Programa monográfico histórico sobre el texto del Magnificat. Desde sus inicios el director de Suessatio Taldea es Aitor Sáez de Cortázar Junguitu.*

# Ipar Alde Abesbatza

INDOSA enpresako langile talde batek, 1976an sortu zuen. 1982an Deriora hurbildu zen, ahots berriak barneratuz.

Ageda Deuneko Lehiaketan, Udaberriko Kontzertuetan, eta Bizkaiko Abesbatzen Astean parte hartu izan du, eta baita leku ezberdinetan, esate baterako: Logroñon, Kantabrian, Gipuzkoan, Araban, A Coruñan, Malagan, Zaragozan, Valladoliden, Asturiasen, Nafarroan, Madrilen, Burgosen edo Katalunian.

1987an Europan zehar bira eskaini zuten Italian eta Austrian kontzertuak eman zituztelarik. Pariseko Notre Dame-ko Katedralean erlijio musikako emanaldia eskaini zuten.

1985az geroztik, “Txorierri”ko Abesbatzentzako Gabon Abesti Sariketako bultzatzaile eta antolatzailea da. Hainbat grabaziotan parte hartu izan du, 2006an “Erromerian” adibidez.

Egun, Imanol Ormazaren zuzendaritzapean, 22 ahots baxuz osatua dagoen abesbatza da.

*Nace en el año 1976, por iniciativa de un grupo de trabajadores de la Empresa INDOSA. En 1982, se integra en el pueblo de Derio, ingresando nuevas voces.*

*Ha participado en el Certamen de Santa Ageda para coros, Conciertos de Primavera, Semana Coral de Bizkaia, etc., ampliando su actuación a comunidades como Logroño, Cantabria, Gipuzkoa, Araba, A Coruña, Málaga, Zaragoza, Valladolid, Asturias, Navarra, Madrid, Burgos o Cataluña.*

*En 1987 realiza una gira por Europa, ofreciendo conciertos Italia y Austria. En 1989, ofrece un recital de música sacra en la Catedral de Notre Dame de París.*

*Desde 1985 es el promotor y organizador del Festival Coral de Villancicos “Txorierri”. Participa en diversas grabaciones, entre las que destaca “Erromerian” (2006).*

*Actualmente el Coro esta compuesto por 22 voces graves bajo la dirección de Imanol Ormaza.*



catalogo Musikaste5.indd 32 23/04/12 15:34

# Coral Barañain

www.coralbaranain.com

1982an sortua, eta egun 45 koru-kidez osatua. Coral Barañain-ek bere herriaren izena hartu zuen. José Ramón Artal Baztán (1982-1998), Isabel Mantecón Vallejo (2003-2005) eta Pello Ruiz Huici-ren (1998-2003, 2005- ) zuzendaritzapean abestu izan du. Hainbat jaialdi eta koru ziklotan parte hartu izan du bai Nafarroan, penintsulan nahiz Frantzian (Toulouse, Saint Palais, Vieux Boucau, Dax), Alemania (Kleve y Remscheid), eta Italian ere, (Erroma), non bakearen aldeko San Pedroren Meza Handian parte hartu zuen Vatikanoan, 2005eko irailaren 11n.

Sariak jaso zituen Autolen (2000), Beriainen (2001), Arrigorriagan (2002), La Felgueran (2007), Burgosen (2009) eta Zumarragan (2011).

Disko ezberdinak grabatu ditu eta, Iruñeko eta Barañaineko koru-zikloak antolatu izan ditu. Musika esperientzia berrietarako jarrera irekia duen korua da, eta 2007az geroztik Nafarroako Koru-Jazz tailerra antolatzen du.

*Fundada en 1982 y formada actualmente por 45 coralistas, Coral Barañáin toma su nombre del municipio donde se ubica. Han sido sus directores José Ramón Artal Baztán (1982-1998), Isabel Mantecón Vallejo (2003-2005) y Pello Ruiz Huici (1998-2003, 2005- ). Ha participado en festivales y ciclos corales tanto en Navarra y resto de la península como en Francia (Toulouse, Saint Palais, Vieux Boucau, Dax), Alemania (Kleve y Remscheid) e Italia (Roma), donde cantó por la paz en la Misa Mayor de San Pedro del Vaticano, el 11 de septiembre de 2005.*

*Ha recibido premios y distinciones en Autol (2000), Beriain (2001), Arrigorriaga (2002), La Felguera (2007), Burgos (2009) y Zumárraga (2011).*

*Ha grabado varios discos y organizado varios ciclos corales en Pamplona y Barañain. Grupo coral especialmente sensible y abierto a nuevas experiencias musicales, organiza el Taller de Jazz Coral en Navarra desde 2007.*

# Landarbaso Abesbatza

www.landarbaso.com

1991 urtearen bukaeran sortu zen Errenterian, musika egiteko gogo handia zuen gazte talde baten eskutik. Gaur egun 49 abeslarik osatzen dute abesbatza, batez besteko 29 urterekin. Abesbatza, hasieratik, Iñaki Tolaretxipiren zuzendaritza musikalaren menpe egon da.

Landarbasok oso errepertorio zabala lantzen du, hainbat garai eta estilotakoak, bai obra profano bai eliza obrak abestuz. Landarbaso Abesbatzak sorkuntza eta euskal folklorearen harmonizazio lana egiten du, bai abesbatzari eta baita gaur egungo musika munduari ere lan ildo berriak eskainiz.

Azken urte hauetan, penintsulan zehar, ziklo, lehiaketa eta kontzertu askotan parte hartu du abesbatzak eta 2001etik aurrera abesbatza nazioarte mailako lehiaketetatik gonbiteak jasotzen hasi da, sari garrantzitsuak eskuratuz.

*Se fundó a finales del año 1991 y en la actualidad está compuesta por 45 coralistas, con una edad media que ronda los 29 años. La coral, desde sus comienzos, ha estado bajo la dirección musical de Iñaki Tolaretxipi.*

*El coro abarca un repertorio muy variado, interpretando obras tanto profanas como sacras de diversas épocas y estilos. Landarbaso Abesbatza realiza un trabajo de creación y armonización de obras de folklore vasco, logrando de esta manera aportar nuevas vías de trabajo tanto para el coro como para el panorama musical en general.*

*Landarbaso ha participado en numerosos ciclos, concursos y conciertos por distintas provincias y comunidades de toda España y a partir del año 2001 ha comenzado a ser invitada a participar en distintos Concursos Corales Internacionales, donde ha obtenido destacados premios. En las Olimpiadas Corales Mundiales 2010 en China obtuvo dos medallas de oro y una de plata.*

*Mitos de la tradición vasca: Lamin, Tartalo, Mateo Txistu, Hurkus errementaria… Tradición rescatada por sabios como José Miguel de Barandiarán, tradición reelaborada por Francisco Escudero, por David Azurza. Mitos, cuentos, savia para nuevas aventuras musicales.*




Yon Oñatibia-ri omenaldia
(Musikaste 2011)



David Azurza (p. 44)
Francisco Escudero (p. 47)

2012-V-19

larunbata, 20:30etan - Fatimako Parrokia

sábado, 20:30 horas - Parroquia de Fátima

# amaierako kontzertua

# concierto de clausura




**David Azurza** *Hurkus errementaria**

**Francisco Escudero** *Mitoen Sinfonia*

*[Eskeintza On Joxe Miel Barandiarani]*
*[Lamin]*
*[Tartalo]*
*[Mateo-Txistu (edo ehiztari ibilkaria)]*

* Estreinaldi nagusia

Orereta Abesbatza

**Imanol Elizasu**, zuzendaria

**Patxi Zubizarreta**, narratzailea

KRATER Ensemble

Xabier Gil, biolina
Diego Arbizu, biolontxeloa
Isabel Souto, flauta
Carlos Noain, klarinetea
Natalia Baquero, pianoa
Iñaki Telleria, perkusioa
Iban Galdós, akordeoia
Nicolás Zubia, tronpeta
Juan Luis Novo, tronboia
**Iker Sanchez**, zuzendaria



catalogo Musikaste5.indd 35 23/04/12 15:34

# Errenteriako Orereta Abesbatza

www.coralandramari.com

José Luis Ansorena Mirandak 1968an sortua, Errenteriako Andra Mari abesbatzaren haurabesbatza da. Hainbat ziklo, lehiaketa eta jaialditan parte hartu izan du, Donostian, Donibane Lohitzunen, Torreviejan, Bartzelonan, Saint Sever-en, Llagollen-en, Shangain (2010 Expo) edo Shaoxing-en (China).

J.S. Bach-en "La Pasión Según Mateo" interpretatu zuen, 1997 eta 1998an, Juanjo Menaren zuzendaritzapean.

Hainbat lantalde eta ikastarotan parte hartzeko gonbiteak jaso izan ditu, Musikene (2005) eta Europa Cantat (2004, Kópavogur, Islandia; 2008, San Sebastián; 2012, Estrasburgo)

Eguberri Abestiak (1978), Oi Betleem (Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, 1991), Ilusio tanten dizdira (2008) grabazioak egin ditu. "La sombra de nadie" (Pablo Malo) filmerako, Aitor Amézagaren soinu bandaren grabazioan parte hartu zuen 2006an.

*Fundado por José Luis Ansorena Miranda en 1968, Orereta Abesbatza es el coro infantil de la Coral Andra Mari de Errenteria. Ha participado en ciclos, certámenes y festivales de San Sebastián, San Juan de Luz, Torrevieja, Barcelona, Saint Sever, Llangollen, Shangai (Expo 2010), o Shaoxing (China). Ha obtenido premios y galardones en Catonigrós (2005 y 2009), Torrevieja (2008) y Shaoxing (China, 2010).*

*En 1997 y 1998 interpreta "La Pasión Según San Mateo " de J. S. Bach, bajo la dirección de Juan José Mena.*

*Es invitado a talleres y cursos en Musikene (2005) y Europa Cantat (2004, Kópavogur, Islandia; 2008, San Sebastián; 2012, Estrasburgo).*

*Tiene las grabaciones Eguberri Abestiak (1978), Oi Betleem (con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, 1991), Ilusio tanten dizdira (2008). En 2006 participa en la grabación de la banda sonora de Aitor Amézaga para la película "La sombra de nadie" (Pablo Malo).*

*Desde 1999 su director es Imanol Elizasu Lasa.*

# Patxi Zubizarreta

Ordiziar idazle eta itzultzaile gasteiztartu honek hainbat lan idatziak ditu bai haur eta gazteentzat (Urrezko giltza, Eztia eta ozpina, Mundua lo dagoen bitartean…), bai helduentzat (Joan, Jeans-ak hozkailuan…). Itzulpengintzan, Printze Txikia edo Nagib Mahfuzen Mirarien kalezuloa nabarmendu daitezke. Ikus-entzunezkoak eta literatura uztartzeko ahaleginean, zenbait ikuskizun edo performance bideratu ditu (Zikoinaren hegaldia, Hamar mezu eta dei bat edo Berunezko soldadutxoa ipuinaren moldaketa Euskadiko Orkestarekin…).

*Escritor y traductor nacido en Ordicia y afincado en Vitoria, ha escrito numerosos libros para niños y jóvenes (Urrezko giltza, Eztia eta ozpina, Mundua lo dagoen bitartean…),y para adultos (Joan, Jeans-ak hozkailuan…). Como traductor, caben destacar, El Principito y el Callejón de los milagros de Naguiz Mahfuz. Queriendo fusionar proyectos audiovisuales y de literatura, ha realizado varias actuaciones o performances (El vuelo de las cigüeñas, Hamar mezu eta dei bat o una versión del Soldadito de Plomo con la Orquesta Sinfónica de Euskadi).*



catalogo Musikaste5.indd 36 23/04/12 15:34

# Krater Ensemble

www.kraterensemble.org

Donostian sortu zen, 2008an. Konpositore garaikideen musika ekoizpen lana ezagutzera eman eta bultzatzeko asmoa zuen. Azken urtetako musika errepertorioa eskaintzen du, eta beste arte batzuekin elkarren arteko lankidetza eszenatokiak sortzen ditu.

Aurelio Edler-Copes konpositoreak eta Iker Sanchez zuzendariak sortua, ehun bakarlarik baina gehiagok osatzen dute, eta lehen helburutzat errepertorio berrien bilaketa eta ikerketa dute.

Krater Ensemblek jaialdi askotan parte hartu izan du, esate baterako, Donostiako Musika Hamabostaldia, Bilboko BBVA Musika Garaikideko Zikloa, Bernaola Jaialdia, Musikaste, Euskal Musikaren Zirkuitua, eta abar. Tabakalera Arte Zentroarekin (Donostia) lankidetzan bi kontzertu denboraldi eskaini zituen, baita Espainiako Errege Akademian ere (Erroma), edo berriki Auditorio Nacional-ean eskaini dituenak, Musika de Hoy 2011-2012 denboraldiaren baitan.

*Surge en 2008 en San Sebastián con la propuesta de dar a conocer e impulsar la producción musical de los compositores con los que compartimos tiempo y espacio, ofreciendo repertorio destacado de la música de los últimos años y creando escenarios de colaboración con otras artes.*

*Impulsado por el compositor Aurélio Edler-Copes y el director Iker Sánchez, está formado por una decena de solistas y tiene como principal filosofía la búsqueda y la investigación de nuevos repertorios.*

*Krater Ensemble ha participado en festivales como la Quincena Musical de San Sebastián, Ciclo de Música Contemporánea BBVA de Bilbao, Festival Bernaola, Musikaste, Circuito de la Música Vasca, etc. Ha realizado dos temporadas de conciertos en colaboración con el Centro de Arte Tabakalera (San Sebastián), así como en la Real Academia de España (Roma), o recientemente en el Auditorio Nacional como parte de la temporada 2011-2012 de Música de Hoy.*

# Iker Sanchez Silva

Hainbat orkestra zuzendu izan ditu, esate betarako, Oportoko Sinfonikoa, Euskadikoa, Tenerifekoa, Bilbokoa, Asturietako Printzerrikoa, Gasteizko Ganberakoa, Donostiako Ganberakoa, eta abar… Hogei obra berritik gora estreinatu ditu, horien artean Opera bat eta Orkestra eta talde instrumentaletarako obrak.

2011/12 denboraldian zehar Kataluniako eta Bartzelona Hiriko Orkestra Nazionalak zuzenduko ditu estreinakoz, eta Nino Rotaren “La Ardilla Astuta” operaren musika zuzendaritza bere gain hartuko du.

Peter Eötvos, Szolt Nagy, Jesus López Cobos, Arturo Tamayo… maisuen zuzendaritza ikasketak egin ditu. Hainbat orkestratako laguntzaile izan da, esate baterako, Boston Symphony, Los Angeles Philharmonic, Luxemburg-eko Orchestre Philharmonique, Bilboko Orkestra Sinfonikoa edo Royal Liverpool Philharmonic Orchestra. Hainbat grabazio ere egin izan ditu.

Egun, Krater Ensemble eta EIO Orkestrako musika zuzendaria da, eta horiekin 2012ko apirilean bira bat emango du Kolonbian, Antonio Lauzurica-ren lan berri bat estreinatuz.

*Ha dirigido a Orquestas como la Sinfónica de Oporto, Euskadi, Tenerife, Bilbao, Principado de Asturias, Cámara de Vitoria, Cámara de San Sebastián...*

*Ha estrenado una veintena de nuevas creaciones, entre ellas una Ópera y diferentes obras para Orquesta y grupo instrumental.*

*Durante la temporada 2011/12 se pondrá por primera vez al frente de la Orquesta Nacional de Cataluña y Ciudad de Barcelona y asumirá la dirección musical de la ópera “La ardilla astuta” de Nino Rota.*

*Tiene formación como director con los maestros Peter Eötvos, Szolt Nagy, Jesus López Cobos, Arturo Tamayo... Ha sido asistente en Orquestas como Boston Symphony, Los Angeles Philharmonic, Orchestre Philharmonique de Luxembourg, Orquestra Sinfónica de Bilbao o Royal Liverpool Philharmonic Orchestra. Tiene en su haber diversas grabaciones.*

*En la actualidad es Director musical de Krater Ensemble y EIO Orkestra, con quienes realiza una gira por Colombia en Abril de 2012, estrenando una obra de nueva creación de Antonio Lauzurica.*



catalogo Musikaste5.indd 37 23/04/12 15:34



Vicent Bru i Soler
(Musikaste 2011)



Felix Ibarrondo,
Alfonso García de la Torre,
Alfonso Gómez
(Musikaste 2011)



Sigma Project
(Musikaste 2011)



Gaztelupe Otxotea
(Errenteria 2011)

# konpositoreak

# compositores

catalogo Musikaste5.indd 39 23/04/12 15:34

# Pascual Aldave

Lesakan jaio zen, 1924an. Francisco Escuderorekin Donostiako Kontserbatorioan bukatu zituen Musika ikasketak, 1953an. Frantziako Gobernuaren beka batez bidez Parisen ikasketak jarraitu zituen. Nadia Boulanger, Jean Françaix eta Maurice Ohanarekin konposizio eta orkestazio ezaguerak hobetu zituen. Kontzertuak eskaini zituen eta Frantziako zenbait ikastetxetan irakatsi zuen, ORTF-rekin ere kolaboratuz. Iruñako Pablo Sarasate Kontserbatorioko irakasle eta zuzendari izan zen. Musika ekoizpenari dagokionean, musika erlijiosoa (Misa litúrgica, Ave Maris Stella, Popule meus…), koru musika (Perfección, Neskazarrak…), ahots musika, Ganbera Musika eta sinfonikoa sortu ditu, Suite infantil vasca, Akelarre edo El Cristo Ibérico, esate baterako.

*Nace en Lesaka en 1924. Concluyó sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián en 1953 con Francisco Escudero. Amplió estudios en París becado por el Gobierno francés. Perfeccionó sus conocimientos de composición y orquestación con Nadia Boulanger, Jean Françaix y Maurice Ohana. Dio conciertos y desarrolló una labor pedagógica en varios centros franceses, colaborando así mismo con la ORTF. Ha sido profesor y director del Conservatorio Pablo Sarasate de Pamplona.*

*Tiene en su haber una amplia producción musical, tanto de música religiosa (Misa litúrgica, Ave Maris Stella, Popule meus…), como música coral (Perfección, Neskazarrak…), música vocal, de cámara y sinfónica, destacando títulos como Suite infantil vasca, Akelarre o El Cristo Ibérico.*

# Paula Álvarez

Paula Álvarez García-k (1987) musika ikasketak Segoviako Musika Kontserbatorio Profesionalean egin zituen, zeharkako flautaren espezialitatean. 2005ean, Nicomedes García beka irabazi zuen. Osasun arazo bat zela eta, musika jotzeari utzi zion eta Musika Irakasle-eskolan hasi zen Valladolid-eko Unibertsitatean. Bertan Beatriz Fraileren konposizio klasera joaten zen. Urte horietan zehar, bere bi obra estreinatu zituzten Segovian. Musika Irakasle-eskolako Diplomatura lortu zuen, 2009an. “Segovia, candidatura a Ciudad Europea de la Cultura” konposizio lehiaketa irabazi zuen, 2010ean, probintzia mailan. Egun (2012), Musikenen Konposizioko 3. Mailan dago Gabriel Erkoreka irakaslearekin.

*Realiza sus estudios musicales en el Conservatorio Profesional de Música de Segovia en la especialidad de Flauta Traversera. En 2005 gana la beca de interpretación Nicomedes García. Un problema de salud en 2007 le obliga a dejar de tocar y comienza Magisterio Musical en la UVA asistiendo también a clase de composición con Beatriz Fraile. Dos de sus obras fueron estrenadas en Segovia durante este periodo. En 2009 obtiene la Diplomatura en magisterio. En 2010 ganó el Concurso de composición “Segovia, candidatura a Ciudad Europea de la Cultura” a nivel provincial. Actualmente (2012) cursa 3º de Composición en Musikene con el profesor Gabriel Erkoreka.*



catalogo Musikaste5.indd 40 23/04/12 15:34

# Juan de Anchieta

1462. urtearen inguruan jaio zen, Azpeitian. Iruñeko katedralean izan ote zen susmoa badago, baina inork ez daki ziurtasun osoz zer heziketa izan zuen hasieran. 1489an, 27 urte zituela Isabel Erregina Katolikoaren kaperau eta kantari. Errege Familiaren zerbitzura igaro zituen hogeita hamar urteetan, Flandriara joan behar izan zuen, 1504. urtearen inguruan, Juana Printzesa laguntzera.

Bi dozena musika-lan polifoniko eta gehiago ezagutzen ditugu eta hona hemen Aita Donostiak esan duena horiei buruz: Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante".

Antxietak erretiratua igaro zituen bere bizitzaren azkeneko lau urteak (1519-1523) Azpeitian, eta bertan hil zen, 1523ko uztailaren 30ean.

Nace en Azpeitia en torno a 1462. Se especula con su posible estancia en la catedral de Pamplona, pero no se conoce con seguridad su formación inicial. En 1489, con 27 años, es capellán y cantor de la reina Isabel la Católica. En sus treinta años de servicio a la Familia Real también se trasladó a Flandes probablemente en 1504, acompañando a la princesa doña Juana.

Se conocen dos docenas largas de composiciones polifónicas suyas, de las que el P. Donostia dice: "Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante".

Juan de Anchieta vivió los últimos cuatro años de su vida (1519-1523) retirado en Azpeitia. Fallece en esta población el 30 de julio de 1523.

# Serafín Argaiz

Iruñean jaio zen, 1912an. Lekarozen barneko ikasle izan zen, non txistua ikasi zuen. Santos Laspiurrekin piano ikasketak eta irakasle-eskolakoak bateratu zituen Iruñean. Beranduago Ex Lettres goi mailako ikasketak egin zituen Parisen. Bi urtetan organoa ikasi zuen Miguel Echevesterekin, eta pianoko ikasketak bukatu zituenean, Premio Caballero saria lortu zuen lehiaketan. Iruñeko txistulari bandaren sortzailea izan zen, 1932an. Pontlevoy-ko (Frantzia) Lizeoko irakasle izan da 1938an, eta hiru urte beranduago Tolosako (Gipuzkoa) Institución de las Escuelas Pías-ekoa.

Nafarroako Aldundiaren baitan, gor-mutuen lehen eskola sortu zuen 1944an, eta baita adimen urriko Institutu Pedagogikoa ere. Gai askoren inguruan hamaika idatzi egin izan ditu.

*Nace en Pamplona en 1912. Estudia en el colegio interno de Lecároz, donde aprende el manejo del txistu. Compagina los estudios de piano con Santos Laspiur con los de Magisterio en Pamplona. Más adelante cursa estudios superiores Ex Lettres en París. Cursó asimismo dos años de órgano con Miguel Echeveste y al finalizar los estudios de piano obtuvo en concurso el Premio Caballero. Fue fundador de la banda de txistularis de Pamplona en 1932. En 1938 fue profesor del Liceo de Pontlevoy (Francia) y tres años después en la Institución de las Escuela Pías de Tolosa (Gipuzkoa). En 1944 fundó la primera escuela de sordomudos, incorporada a la Diputación de Navarra, y el Instituto Pedagógico para niños discapacitados mentales. Es autor de numerosos escritos de muy variados temas.*



catalogo Musikaste5.indd 41 23/04/12 15:34

# Valentín de Arín

Ordizian (Gipuzkoa) jaio zen, 1854an. Madrilgo Kontserbatoriora sartu zen 1867an, konposizio karrera 1877an bukatu zuelarik. Leganeseko nesken ikastetxeko irakasle plazan Baltasar Sandoni ordezkatu zuen. Madrilgo Escuela Nacional de Musica-n armoniako plaza lortu zuen 1889an. Pedro Fontanillarekin batera, ikastetxeko beste irakasle bat, Eslavak egindakoa ordezkatuko zuen Método de armonía egin zuten, espainiako kontserbatorioetan oso ezaguna egin zena. San Luiseko parrokiako organo-jotzailea izan zen. Era berean, Madrilgo Asociación Wageniarianako lehendakariordea izan zen eta Bilboko Euskeria Orfeoiko ohorezko lehendakaria. Konposizioari dagokionean abesbatza eta obra erlijiosoen autorea da nagusiki.

*Nace en Ordizia (Gipuzkoa) en 1854. Ingresa en el Conservatorio de Madrid en 1867, terminando la carrera de composición en 1877. Sucedió a Baltasar Saldoni en la plaza de maestro de canto y de coro del Colegio de las Niñas de Leganés. En 1889 obtiene la plaza de armonía de la Escuela Nacional de Música en Madrid. En unión con Pedro Fontanilla, otro de los profesores del centro, elaboró el Método de armonía que desplazaría al de Eslava, siendo muy difundido en los conservatorios españoles. Fue organista de la parroquia de San Luis. Fue asimismo vicepresidente de la Asociación Wagneriana de Madrid y presidente honorario del Orfeón Euskeria de Bilbao. Como compositor es autor principalmente de obras religiosas y corales.*

# Francisco Arrarás

Iruñean jaio zen, 1912an. Aita Kaputxinoen Lekarozeko ikastetxean merkataritza ikasketak egin zituen. Berrogei urtez Nafarroako dantzak biltzeari ekin zion. Hainbat folklore talde sortu zuen, beste batzuen artean, Iruñeko Udaletxeko Udal Dantzari Taldea, 1949an. 50 Hamarkadan Duguna musika-koreografia ikuskizunaren zuzendari eta koreografoa izan zen. Egun ezaguna den Baile de la Era berreskuratu zuen. Obanoseko Misterio de San Guillén y Santa Felicia-ren koreografia asmatu zuen. Nafarroako dantza, folklore eta jantziei buruzko zenbait liburu eta artikulu idatzi izan ditu.

*Nace en Pamplona en 1912. Realizó estudios mercantiles en el colegio de PP. Capuchinos de Lecároz, donde se interesó por el folklore. Recopiló durante cuarenta años las danzas de Navarra. Fundó varios grupos folklóricos, entre ellos el Grupo Municipal de Dantzaris del Ayuntamiento de Pamplona en 1949. En los años 50 fue el director y coreógrafo del espectáculo músico-coreográfico Duguna. Rescató el tradicional y hoy popular Baile de la Era. Creó igualmente la coreografía del Misterio de San Guillén y Santa Felicia de Obanos. Es autor de varios libros y artículos sobre danza, folklore e indumentaria de Navarra.*



catalogo Musikaste5.indd 42 23/04/12 15:34

# José de Azpiazu

*Oñatin (Gipuzkoa) jaio zen, 1912an. Zazpi urterekin parrokiako abesbatzan sartu zen eta garai hartan ere bere osaba Ángel Iriarte gitarra erakusten hasi zitzaion, bere kabuz ikasten jarraitu zuelarik. Suitzara joan zen Andrés Segoviaren laguntzaz, eta gitarrako irakasle aritu zen Ginebra eta Lausanako kontserbatorioetan, 1950etik 1964ra. Beranduago, hari pultsatuko musika interpretatu eta ikertu zuen. Guadaluperekin, bere alabarekin, kontzertu ugari eskaini zituen Europa eta Amerikan, eta New York-eko EMS eta Milango Ricordi diskoetxeetarako grabazioak egin zituen. Espainiar bihuela-jotzaileen zein autore garaikideen obren transkripzioen autorea da, Ginebrako Editions Beltz argitaletxea sortu zuelarik. Ginebran hil zen, 1986an.*

*Nace en Oñati (Gipuzkoa) en 1912. Ingresa a los siete años en el coro parroquial a la vez que comienza con su tío Ángel Iriarte los estudios de guitarra, completando su formación musical de manera autodidacta. Se traslada a Suiza con el apoyo de Andrés Segovia, ejerciendo de profesor de guitarra en los conservatorios de Ginebra y Lausana desde 1950 hasta 1964. Se dedica posteriormente a la interpretación e investigación de la música para cuerda pulsada. Ofreció numerosos conciertos con su hija Guadalupe por toda Europa y América, grabando para las casas EMS de Nueva York y Ricordi de Milán. Es autor de numerosas transcripciones para guitarra tanto de la obra de vihuelistas españoles como de autores contemporáneos, fundando la editorial Editions Beltz en Ginebra. Fallece en Ginebra en 1986.*

# Primitivo Azpiazu

Zumarragan (Gipuzkoa) jaio zen, 1912an. Musika ikasketak bere aitarekin hasi zituen, Zumarragako Udal Bandako zuzendaria bera, eta zazpi urte zituela sartu zen banda horretan, flauta jotzen. Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen eta beranduago Donostiako Kontserbatorioko Orkestra Sinfonikoan sartu zen. Flauta eta orkestrarako obretako bakarlari sarritan izan zen. Flautako katedradun moduan sartu zen oposaketa bidez Donostiako Kontserbatorioan, 1952an. Era berean, Irungo Musika Bandako zuzendaria izan zen.

*Nace en Zumarraga (Gipuzkoa) en 1912. Inició los estudios musicales con su padre, Fermin Azpiazu, director de la banda municipal de Zumarraga en la que ingresó como flautista a los siete años. Realizó sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián, ingresando posteriormente en la Banda Municipal de Música y posteriormente en la Orquesta Sinfónica del Conservatorio Municipal de Música de San Sebastián. Desempeñó repetidas veces el papel de solista en obras para flauta y orquesta. En 1950 ingresa por oposición como catedrático de flauta del Conservatorio de San Sebastián. Fue igualmente director de la Banda de Música de Irun.*



catalogo Musikaste5.indd 43 23/04/12 15:34

# David Azurza

http://www.oihuhau.com/

Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1968an. Arte Ederretan lizentziatua da eta kontratenore ikasketak Isabel Alvarezekin egin zituen. Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioan kantuko Lucrecia Arana saria jaso zuen.

Capilla Peñaflorida (antzinako musikan espezializatuak) eta KEA (musika garaikidea) taldeetako kide da. Abesbatza, talde instrumental eta orkestrekin kolaborazioak egin ditu, Euskal Herrian eta atzerrian.

Zenbait operen estreinaldi absolutu eta grabaziotan protagonista paperak izan ditu: Tomas Marcorena (2003), Mauricio Sotelorena (2006), Eduardo Perez Masedarena (2006), José Mª Sánchez Verdúrena (2007), Luis de Pablorena (2010), Pilar Juradorena (2011) eta Juan José Eslavarena (2011).

Bere kabuz ikasi duen konpositorea da, ahotsetarako musikara mugatzen da bere lana gehien bat. Bere obrak ezagutzera emateko 2004 urtean *Oihu hau* argitaletxea sortu zuen, 80 obra baino gehiago editatu dituelarik: korurako moldaketak, bere konposizioak, ipuin musikalak eta ganberarako opera bat (Altzoko Haundia, txikien opera, 2011).

*Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968. Licenciado en Bellas Artes. Se forma como contratenor con Isabel Alvarez. Premio extraordinario Lucrecia Arana de canto en el Conservatorio Superior de Madrid.*

*Es miembro de los grupos vocales Capilla Peñaflorida (música antigua) y KEA (contemporánea). Ha trabajado con infinidad de grupos vocales, instrumentales y orquestales en otros tantos proyectos dentro y fuera de nuestras fronteras.*

*Ha realizado y participado en diversos estrenos absolutos y primeras grabaciones de óperas contemporáneas de Tomás Marco (2003), Mauricio Sotelo (2006), Eduardo Pérez Maseda (2006), José Mª Sánchez Verdú (2007), Luis de Pablo (2010), Pilar Jurado (2011), Juan José Eslava (2011).*

*Compositor autodidacta, su actividad se centra exclusivamente en el ámbito vocal. Más de 80 obras editadas, desde arreglos corales, composiciones propias, cuentos musicales y una ópera de cámara (Altzoko Haundia, txikien opera, 2011) en* Oihu hau, *el sello editorial creado por él en 2004 para difundir su obra.*

# Íñigo Bregel

1990 urtean jaiotako kantabriar konpositorea. Gradu erdiko musika ikasketak Santanderreko "Jesús de Monasterio" kontserbatorioan egin zituen pianoko espezialitatean. Egun (2012), Musikeneko konposizioko goi mailako graduko 3. kurtsoa egiten ari da. Kantabriako "CRAYOLASER" psikodeliko musikako talde lokaleko kide da, eta teklatua, gitarra eta ahotsak jartzen ditu, eta, gainera, abesti guztien konpositorea da. Kantabriako Unibertsitateko publikoaren lehen saria lortu zuen talde horrek (2010eko Maiatza).

Beste batzuen artean, honako obren autorea da Rima LXXI (2010); 3 Piezas para Oboe (2010); Trío (2011); Estudio Para Piano (2011); Cuarteto de Cuerdas (2012). Berak nahastu eta masterizatzen dituen hainbat musika progresiboko gaien autorea da.

*Compositor cántabro nacido en 1990. Realiza los estudios musicales de grado medio, especialidad piano en el Conservatorio "Jesús de Monasterio" de Santander. Actualmente (2012) cursa 3º grado superior de composición en Musikene. Forma parte del grupo local cántabro de música psicodélica "CRAYOLASER" en el cual toca teclados, guitarras y voz, siendo compositor de todos los temas. Este grupo obtiene el 1º premio al grupo más votado por el público en la Universidad de Cantabria (mayo 2010).*

*Es autor, entre otras obras de Rima LXXIV (2010); 3 Piezas para Oboe (2010); Trío (2011); Estudio Para Piano (2011); Cuarteto de Cuerdas (2012). Es autor asimismo de una gran cantidad de temas progresivos que él mismo mezcla y masteriza.*



catalogo Musikaste5.indd 44 23/04/12 15:34

# Emma Chacón

Bartzelonan jaio zen, 1886an. Musika ikasketak bere jaioterrian egin zituen. Pianoa jotzen hobetzeko ikasketak Enrique Granadosekin egin zituen, eta armonia, kontrapuntu, fuga eta konposiziokoak José Rivera Miró-rekin. Pianojotzaile moduan gazte hasi zen. 1912az geroztik musika jarduera Bilbon jorratu zuen, konpositore moduan bereziki. Piano, ahots eta piano, ganbera eta musika erlijiosorako obra asko egin zituen, baita La Jaula de oro 3 ekitaldiko opereta ere. "Impulso" argitaletxearen izenarekin kaleratu zituen bere auto-ekoizpenak. Bilbon hil zen, 1972an.

*Nace en Barcelona en 1886. Realizó estudios musicales en su ciudad natal, siendo discípula de Enrique Granados en perfeccionamiento de piano y de José Rivera Miró en armonía, contrapunto, fuga y composición. Desarrolló una temprana carrera como pianista. A partir de 1912 desarrolla su actividad musical en Bilbao, especialmente como compositora.*

*Es autora de un buen número de obras para piano, canto y piano, música de cámara, música religiosa, así como de la opereta en tres actos La Jaula de oro. Publicó sus obras como autoediciones bajo el nombre de Ediciones "Impulso". Fallece en Bilbao en 1972.*

# José Rubén Cid

Segovian jaio zen, 1987an. Segoviako musika kontserbatorio profesionalean ikasi zuen. 2007an espediente onenaren aipamena zuela, pianoko gradu erdiko ikasketak amaitu zituen. Urte berean Musikenen ikasten hasi zen, eta egun konposizioko bosgarren urteko ikasketak, orkestra zuzendaritza ikasketekin bateratzen ditu. Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano edo Stefano Scarani izan ditu konposizioko irakasle eta Manel Valdivieso edo Enrique García Asensio orkestrako zuzendaritzakoak. 2011/2012 urteko lehen seihilekoan Suizako Hochschule der Künste Bern-en ikasi du, Xavier Dayer edo Andreas Stahl irakasleekin. Bere obrak Sinkro, Klem-Kuraia edo Rompeolas jaialdietan estreinatuak izan dira.

*Nace en Segovia en 1987. Estudia en el conservatorio profesional de música de Segovia donde finaliza sus estudios de grado medio de piano en 2007, recibiendo la mención al mejor expediente. En el mismo año comienza sus estudios en Musikene, donde actualmente compagina 5º de las especialidades de composición y dirección de orquesta. Ha estudiado con profesores como Gabriel Erkoreka, Ramón Lazkano o Stefano Scarani en composición y Manel Valdivieso o Enrique García Asensio en dirección de orquesta. Así mismo durante el primer semestre del curso 2011/2012 ha estudiado en la Hochschule der Künste Bern, en Suiza con profesores como Xavier Dayer o Andreas Stahl. Sus obras han sido estrenadas en festivales como SINKRO, KLEM-KURAIA o Rompeolas.*



catalogo Musikaste5.indd 45 23/04/12 15:34

# Gorka Cuesta

Donostian jaio zen, 1969an. Jaioterriko kontserbatorioan egin zituen musika ikasketak, baita Baionako Conservatoire National de Region-en eta Lyoneko Conservatoire National Supérieur de Musique-n ere. Konposizioa ikasi zuen Edith Canat de Chizy-rekin Pariseko "Erik Satie" kontserbatorioan.

Donostiako Musika Hamabostaldiaren, Pagoarte Kultur Elkartearen eta Lyoneko Orkestra Nazionalaren enkarguak izan ditu. Bere lanagatik hainbat alditan saritua izan da, esate baterako: Cristóbal Halffter (2008) saria eta Monaco-ko Katedraleko Musika Erlijiosoaren Konposizio Lehiaketako sari berezia organorako (2009).

Musikeneko irakasle izan zen, eta 1989az geroztik organo laguntzaile da Donostiako Koruko Andre Mariaren Andre Mariaren Basilikan. 2009an organista titularkide izendatu zuten.

Nace en San Sebastián en 1969, cursando estudios musicales en el conservatorio de su ciudad natal, así como en el Conservatoire National de Region de Bayona y en el Conservatoire National Supérieur de Musique de Lyon. Amplía estudios de composición con la compositora Edith Canat de Chizy en el conservatorio "Erik Satie" de París.

Ha recibido encargos de la Quincena Musical de San Sebastián, de la Asociación Cultural Pagoarte o de la Orquesta Nacional de Lyon, siendo premiado en diversos cursos de composición, como el Premio Cristóbal Halffter (2008) y el Premio especial para órgano del Primer Concurso de Composición de Música Sacra de la Catedral de Mónaco (2009).

Ha sido profesor de Musikene y es desde 1989 organista asistente de la Basílica de Santa María del Coro de San Sebastián, siendo nombrado en 2009 organista cotitular de la misma.

# Jesús Egiguren

Durangon jaio zen, 1945ean. Piano eta Konposizio ikasketak Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Kontserbatorioan egin zituen. Munichen sakondu zituen ikasketak. Betidanik abesbatzen mundura oso lotuta egon da alor desberdinetan. Urte askotan Durangoko Orfeoiaren zuzendari izan da eta Durangoko "Bartolome Ercilla" Musika Kontserbatorioko irakasle.

Musikagile bezala sari desberdinak jaso ditu. "Antífona" obrak Segorbe Saria lortu zuen 1987an, eta hurrengo urtean Eskifaia Abesbatzak estreinatu zuen Javi Bustoren zuzendaritzapean. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan derrigorrezko obra izan da eta 2011n Musikagileak-ek antolatutako Nazioarteko Bandarako Abestien Konposizio I Lehiaketako irabazlea izan da.

*Nace en Durango (Bizkaia) en 1945. Realiza estudios de Piano y Composición en el Conservatorio Juan C. Arriaga de Bilbao. Amplía su formación en Munich. Ha estado siempre muy vinculado al Mundo Coral en todas sus facetas. Ha sido director del Orfeón de Durango y profesor en el Conservatorio "Bartolome Ercilla" de la localidad.*

*Como compositor ha obtenido diversos premios, que le acreditan su valía.*

*La obra "Antífona" fue ganadora del Premio Segorbe en 1987 y fue estrenada por el Coro Eskifaia, bajo la dirección de Javi Busto, al año siguiente. Ha sido "obra obligada" en el Certamen de Masas Corales de Tolosa. Recientemente ha sido en 2011 el ganador del I Concurso Internacional de Composición para Bandas, organizado por Musikagileak.*



catalogo Musikaste5.indd 46 23/04/12 15:34

## Josu Elberdin

http://elberdin.com/

Pasaian jaio zen, 1976an. Pianoa, kantua eta harmonia ikasi zituen. Musika irakasle eta koru zuzendari da, eta organista ere bada Trintxerpeko Karmengo Andre Mariaren parrokian.

Haurrentzako koru musikari buruzko ikastaroak eman ohi ditu. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako haur korurako musikaren XXIII. lehiaketa irabazi zuen eta Gipuzkoako Abesbatzen Lehiaketatik izan ditu enkarguak.

*Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976. Ha realizado estudios de piano, canto y armonía. Se dedica profesionalmente a la enseñanza musical, la dirección de coros y es organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe (Gipuzkoa). Imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral infantil. Es ganador del XXIII concurso de composición para coros infantiles organizado por la Federación de Coros de Gipuzkoa y ha recibido encargos del Certamen de Masas Corales de Gipuzkoa.*

## Francisco Escudero

http://www.eresbil.com/web/escudero/

1912ko abuztuaren 13an jaio zen, Donostian. Udal Akademian eta Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen musika-ikasketak Beltran Pagolarekin. Konposizio-ikasketak Madrilen amaitu zituen, Conrado del Campo maisuaren gidaritzapean.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta San Fernando Arte Ederretako Errege Akademiaren diru-laguntzari esker, konposizioko eta orkestra-zuzendaritzako ikasketak sakondu zituen Frantzian eta Alemanian Paul Dukas, Le Flem eta W. Wolf maisuen zuzendaritzapean.

1945ean, Bilboko Miserikordia Santuko musika-maisu eta Elkarte Koraleko zuzendari izendatu zuten.

1947an, Donostiara etorri zen bizitzera eta bertako Udal Kontserbatorioko harmoniako eta konposizioko katedrak atera zituen. 1962an bertako zuzendari izendatu zuten, 1981 arte.

Gero, 1983an erretiroa hartu zuen arte harmoniako eta konposizioko katedretan aritu zen.

Lan pedagogiko handia burutzeaz gainera, sakontasun handiz landu du musika-konposizioaren arloa.

Bere-bereak dituzten ezaugarri bereziak eta mundu osoan ezagututako musika-lan ugari idatzi ditu, euskal musikaren historiarako oso garrantzitsuak guztiak.

*Nace en San Sebastián el 13 de agosto de 1912. Inició sus estudios musicales en la Academia Municipal y en el Conservatorio Donostiarra, bajo la dirección de Beltrán Pagola. Los estudios de composición los terminó en Madrid, teniendo como maestro a Conrado del Campo.*

*Con becas de la Diputación de Gipuzkoa y de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando perfeccionó la composición y la dirección orquestal en Francia y Alemania con los maestros Paul Dukas, Le Flem y W. Wolf.*

*En 1945 fue nombrado maestro de música de la Santa Misericordia y director de la Sociedad Coral, ambas de Bilbao.*

*En 1947 se instaló en San Sebastián, logrando este año la cátedra de armonía y composición del Conservatorio Municipal.*

*En 1962 fue nombrado director del mismo, cargo que ejerció hasta 1981, limitándose desde entonces a su cátedra de armonía y composición hasta 1983, año de su jubilación.*

*Su gran tarea pedagógica ha estado acompañada de una profunda entrega a la composición musical. Es autor de una importante lista de obras transcendentales en la historia de la música vasca, de características propias inconfundibles y aceptación universal.*



catalogo Musikaste5.indd 47 23/04/12 15:34

# Ignacio Ferrando

Valentzian jaio zen, 1982an. Torrelodoneseko Antón García Abril musika eskolan musika eta pianoa ikasten hasi zen. Beranduago Pepita Cervera, Teresina Jordà eta Asya Nebosinarekin ikasi zuen. 2007an Madrilgo Universidad Complutense-an informatikako ingeniaritzan lizentziatu zen, karrera amaierako proiektua Orfeo programa izan zelarik, musika konposiziorako laguntza programa. Crisis eta The nice people taldeetako interpretea eta konpositorea da.

Musikako softwarearen garapenean, partituren edizio eta digitalizazioan eta Rockola.fm internet bidezko musika proiektuan lan egin izan du. Egun (2012an) konposizio ikasketak egiten ditu Musikenen. Mauricio Sotelo, Moritz Eggert, Ivan Fedele eta Albeto Posadasen ikasgela magistraletan parte hartu izan du. Vitoria-Gasteizko Sinkro jaialdian eta Lisboako Musica Vivan jaialdian bere musika interpretatua izan da.

*Nace en Valencia en 1982. Comienza sus estudios de lenguaje musical y piano en la escuela de música Antón García Abril (Torrelodones). Posteriormente amplía sus conocimientos con Pepita Cervera, Teresina Jordà y Asya Nebolsina. En 2007 obtiene el título de ingeniero en informática por la Universidad Complutense de Madrid, desarrollando como proyecto de fin de carrera el programa Orfeo, un asistente de composición musical. Es integrante, como intérprete y compositor, de los grupos Crisis y The nice people.*

*Ha trabajado en el desarrollo de software musical, edición y digitalización de partituras y en el proyecto de música por internet Rockola.fm. Actualmente (2012) cursa estudios de composición en Musikene. Ha asistido a masterclasses de Mauricio Sotelo, Moritz Eggert, Ivan Fedele y Alberto Posadas. Su música ha sido interpretada en festivales como Sinkro de Vitoria-Gasteiz y Música Viva de Lisboa.*

# Mª Victoria Figuerido

Irunen jaio zen, 1912an. Musikarekiko zaletasuna zuen familia baten baitan ekin zion musika ikasteari, bera aita Cesar Figuerido Guelbenzu biolinista eta konpositorea izaki. Donostiako Udal Musika Kontserbatorioan biolinaren karrera amaierako lehen saria lortu zuen 1937an, eta Paulino Caballero Fundazioaren saria ere jaso zuen. Ganberarako obra gutxi utzi ditu, biolinerako gehienak. Bere anaia Alvaroren ezkontzarako sortu zuen "Minuetto" obra, Victoria Eugenia Antzokian entzun zen estreinako aldiz, 1945ean eta Unión Musical Españolak publikatu zuen. Mª Victoria Figuerido 1972an hil zen.

*Nace en Irún en 1912. Inició sus estudios musicales en el seno de una familia musical, con su padre el violinista y compositor César Figuerido Guelbenzu. Logró en 1937 el primer premio Fin de carrera en violín en el Conservatorio Municipal de Música de San Sebastián, recibiendo asimismo el premio de la Fundación Paulino Caballero. Fue nombrada en 1943 profesora auxiliar de violín en el mismo centro. Ha dejado un corto número de obras de cámara, principalmente para violín. El título "Minuetto", compuesto con motivo de la boda de su hermano Álvaro, fue públicamente estrenado en el Teatro Victoria Eugenia en 1945 y publicado por la editorial Unión Musical Española. Mª Victoria Figuerido falleció en 1972.*



catalogo Musikaste5.indd 48 23/04/12 15:34

# Tomás Garbizu

Lezon jaioa zen, 1901ko irailaren 12an. Herriko elizako korokume izan zen. Pianoa jotzen ikasi zuen bere anaia Jose apaizarekin. Arantzazuko Apaizgaitegian ikasi zuen urte batzuetan eta horrek hatz sakona utzi zion. Donostiako Kontserbatorioan, Jose Mª Iraolarekin piano eta Beltran Pagolarekin armonia ikasi zituen. Ikasketak sakontzera Madrilgo Kontserbatoriora eta, gero, Parisa jo zuen, Charles Leboutekin.

Frantziak Madrilen duen Enbajadako organojole ofiziala izan zen.

1954 ezkeroztik, Donostiako Kontserbatorioko organo Katedradun izan zen, erretiro garaira arte, ikasle adituak bultzatu eta lagunduz.

Tomas Garbizu jole baino musikagile da. Horregatik, era guztietako lanak utzi dizkigu: erlijio musika ugari, euskal musika korala, txistua, lied-a, pianoa, organoa, ganbera-musikakamara musika, oratorioak, zarzuelak, e.a.

Donostian hil zen, 1989ko azaroaren 27an.

*Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia iniciándose en el piano con su hermano José, sacerdote. Varios años en el Seminario de Aránzazu dejaron una gran huella en el corazón de Tomás Garbizu. En el Conservatorio de San Sebastián estudió piano con José Mª Iraola y armonía con Beltrán Pagola, ampliando estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid, y más tarde en París con Charles Lebout.*

*Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid. Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián, hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos.*

*Tomás Garbizu ha legado como compositor abundante música religiosa, música coral, para txistu, lied, piano, órgano, música de cámara, oratorios, zarzuela... Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.*

# Juan García de Basurto

Euskal lurraldearen gehiengoari zegokion Calahorrako elizbarrutian jaio zen, 1480 inguruan. Toledon Cisneros kardinalaren zerbitzuetara egon zen kapera maisu bezala. 1517an Tarazonako (Zaragoza) Katedraleko kantari izendatu zuten, eta hainbat hilabeteren buruan koruko maisu postua eskuratu zuen. 1521ean Zaragozako Nuestra Señora del Pilar basilikara joan zen. Dirudienez, gero Palentzian egon zen (1521-1525) eta Isabel enperatrizaren kapera maisu eta kapilau erreala izan zen. 1539an Juan Tavera Toledoko artzapezpikuaren zerbitzura jarri zen kapera maisu moduan. Lau urte geroago, 1543an, kapera hau Felipe II. Printzearen Kapera bihurtu zen. 1547an hil zenean, Pedro de Pastrana izan zen bere ondorengoa.

XVI. mendearen lehen zatian beste askorekin gertatzen den bezala, musikagile bezala konposatu zituen obretatik ez dira asko kontserbatzen. Ezagutzen direnen artean lau meza, motete desberdinak eta instrumenturako zenbait transkripzio daude.

*Nace en la diócesis de Calahorra, -diócesis a la que pertenecían buena parte de las localidades vascas-, hacia 1480. Presta servicios de maestro de capilla en la corte del cardenal Cisneros en Toledo. En 1517 es contratado como cantor en la Catedral de Tarazona, donde meses más tarde asciende a maestro de coro. En 1521 se traslada a Zaragoza para ocupar el magisterio de la Basílica de Nuestra Señora del Pilar. Parece que después estuvo en Palencia (1521-1525) y posteriormente fue capellán real y maestro de capilla de la emperatriz Isabel. En 1539 entra a servir como maestro de capilla del arzobispo de Toledo, Juan Tavera. Cuatro años más tarde, en 1543, esta capilla pasa a convertirse en la Capilla del Príncipe Felipe II.*

*No se conservan muchas de sus composiciones. Se conocen cuatro misas, diversos motetes y varias transcripciones instrumentales.*



catalogo Musikaste5.indd 49 23/04/12 15:34

# Junkal Guerrero

Andoainen jaio zen 1968an. Donostiako Kontserbatorioan musika ikasketak egin zituen. Javier Busto, Pierre Cao eta Eric Ericson-ekin sakondu zituen ikasketak. Alberto Agirre Abesbatza, Xaramel Abesbatza eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko abesbatzak zuzendu ditu. Musikagintzari dagokionez. 2007an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan Bi bihotz obra gai behartua izan zen eta Kantika abesbatzaren enkargu baten ondorioz Non degu, non? obra estreinatu eta grabatu zuen. Normalki bere obrak CM Ediciones Musicales-en argitaratzen ditu.

Gaur egun Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko piano irakaslea da eta pianista gisa kontzertuak eman ditu herri desberdinetan.

*Nace en Andoain en 1968. Realiza estudios musicales en el Conservatorio Superior de Donostia. Amplía su formación coral con Javier Busto, Pierre Cao y Eric Ericson, entre otros. Ha dirigido la coral Alberto Aguirre, el coro infantil Xaramel y el coro de la Asociación de Escuelas de Música de Euskal Herria, además de cantar en diversos coros. Ha recibido encargos de formaciones como Kanta Cantemus Korua o la coral Kantika. Su obra Bi bihotz fue obligada en el Certamen coral de Tolosa 2007. Habitualmente edita con CM Ediciones Musicales.*

*Es profesora de piano en el Conservatorio Francisco Escudero de San Sebastián y ha ofrecido conciertos como pianista en distintas localidades vascas.*

# Mariano Jiménez

Musika ikasketak Iruñeko “Pablo Sarasate” Goi Kontserbatorioan ikasi zituen. Arlo profesionalean, musika pedagogia eta konposizioa uztartu izan ditu. Hainbat unibertsitate, musika irakaskuntza zentro eta kultur fundaziotan gonbidatu izan dute. Era berean, kultur dibulgazioaren inguruko gaien ohiko laguntzailea da irrati zein idatzizko prentsan. “@Wendy” laburmetraia, gidoi propioarekin zuzendu zuen, 2009an. Konposizioari dagokionez, korurako hainbat obren autore da, baita “Pilar Sarasola, una mujer contracorriente” dokumentalaren soinu bandarena ere.

*Realiza estudios musicales en el Conservatorio “Pablo Sarasate” de Pamplona. Desarrolla su actividad profesional en el campo de la pedagogía musical compaginándolo con el de la composición. Invitado con regularidad para impartir cursos y conferencias en universidades, centros de enseñanza musical y fundaciones culturales. Es asimismo colaborador habitual en radio y prensa escrita sobre temas culturales. En 2009 ha dirigido el cortometraje “@Wendy”, con guión propio. En el ámbito de la composición es autor de obras corales, así como de la banda sonora del documental “Pilar Sarasola, una mujer contracorriente”.*

# Alexandre Lesbordes

1912 urtean jaio zen, Baigts de Bearn-en (Akitania). Bere ikasketak Baionako apaizgaitegian egin zituen, bertan apaiz egin zen, eta Erromako Frantses apaizgaitegian egin zituen, doktore maila lortuz.

Baionako Apaizgaitegian musika eta liturgia irakasle izan zen. 55 urte zituenean, Lourdes-ko Basilikako organista eta musika arduradun izendatua izan zen.

1969 urtean hil zen, Lourdes-en.

*Nace en Baigts de Bearn (Aquitania) en 1912. Realiza sus estudios en el Seminario de Bayona, donde se ordena sacerdote, así como en el Seminario Francés de Roma, alcanzando el grado de doctor.*

*Fue profesor de música y de liturgia en el Seminario de Bayona. A la edad de 55 años es nombrado organista y responsable musical de la Basílica de Lourdes.*

*Fallece en Lourdes el año 1969.*



catalogo Musikaste5.indd 50 23/04/12 15:34

# Miguel Matamoro

1991n, Vigon jaiotako galiziar musikagilea. Juana Mora, Leonel Morales, Piotrk Stanick, Sergei Bedrozny eta Andrés Alén-ekin ezin zituen piano ikasketak.

Konposizio ikasketak egin zituen Musikenen, Euskal Herriko Musikaren Goi Mailako Zentroan, Gabriel Erkoreka, Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramón Lazkano, Jose Luís Campana eta Stefano Scarani-rekin.

Bere obrak hainbat lekutan estreinatuak izan dira, esate baterako: Fundación Mayeusis, (Vigo, Galizia), Bassano del Grapa (Italia), Festival Sinkro (Gasteiz, Euskadi), Donostiako Musika Hamabostaldia, Schola Cantorum (Paris), eta berak parte hartu izan duen beste hainbat kontzertutan.

2012ko otsailean, haizezko Ensemblerako obra estreinatu zuen, Musikeneko haizezko Ensembleak interpretatu zuena, Clara Novakovaren zuzendaritzapean.

*Compositor gallego, nacido en Vigo en 1991. Realiza estudios de piano con Juana Mora, Leonel Morales, Piotrk Stanick, Sergei Bedrozny y Andrés Alén.*

*Realiza estudios de composición en Musikene, Centro Superior de Música del Pais Vasco con Gabriel Erkoreka, Zuriñe F. Gerenabarrena, Ramón Lazkano, Jose Luís Campana y Stefano Scarani.*

*Sus obras han sido estrenadas en la Fundación Mayeusis, (Vigo, Galicia), Bassano del Grapa (Italia), Festival Sinkro (Vitoria, Euskadi), Quincena musical, Schola Cantorum (París) y en diversos conciertos en los que él mismo interpreta sus obras.*

*En febrero de 2012 estrena su obra para Ensemble de vientos interpretada por el Ensemble de viento madera de Musikene, dirigida por Clara Novakova.*

# Miguel Navarro

XVI. mende bukaera eta XVII. mende hasierako kapera-maisua. Iruñan jaio zen 1563 inguruan eta bertan hil zen 1627an. 1585 aldera Iruñako katedraleko maisu agertzen zen eta urte batzuk geroago Kalagorriko katedraleko maisu izendatu zuten. Leongo eta Salamancako katedraletan maisu izateko ahaleginek huts egin ziotenean, 1600ean Turruncun-era erretiratu zen, Errioxako herri hustu batera. 1608an agertu zen berriz Iruñako katedralean, eta batzuetan kapera-maisu gisa agertzen da Juan de Aldaba postu horretako titularra zen garaian. 1616an hil zen Juan de Aldaba, eta orduan Navarrok hartu zuen maisutza, hil zen arte. 16 magnificat egin zituen, bezperetarako salmoak, bi motete, eta salbe bat. Ekoizpen honen guztiaren zati handi bat 1614an argitaratu zen Carlos Labayenen inprentan. 1595eko Libro de himnos y salmos ere iritsi zaigu.

*Maestro de capilla de finales del s. XVI y principios del s. XVII. Nace en Pamplona hacia 1563 y muere en la misma localidad en 1627. Hacia 1585 figura como maestro de la catedral de Pamplona y unos años después es nombrado maestro de la seo de Calahorra. Tras intentar obtener sin éxito los magisterios de la catedral de León y de Salamanca, en 1600 se retira a un pueblo abandonado de la Rioja, Turruncún. En 1608 reaparece en la catedral de Pamplona, donde en ocasiones aparece como maestro de capilla, en la época en que Juan de Aldaba era titular del puesto. Cuando fallece éste en 1616 Navarro asume el magisterio hasta su muerte. Consta su producción de 16 magnificat, salmos de vísperas, 2 motetes y una Salve. En 1614 publicó gran parte de su producción musical en la imprenta Carlos Labayen.*



catalogo Musikaste5.indd 51 23/04/12 15:34

# Sabin Salaberri

1934an Aramaioko Ibarran (Araba) jaio zen. Gasteizen burutu zituen pianoko, harmoniako eta konposizioko ikasketak. Tomas Etxabarrirekin, Julio Valdesekin eta Francisco Escudererorekin, hurrenez hurren.

1960tik 1977ra Gasteizko Apaizgaitegiko "Schola Cantorum"eko musika-arduradun eta zuzendari izan zen. 1968an, Gizonezko Araba koruarekin aritu zen lankidetzan eta 1985 arte zuzendu zuen.

1975az geroztik, Gasteizko Kontserbatorioko irakasle da eta hamar urtetan zehar bertako ikasketaburua izateaz gain, zuzendari ere izan zen lau urtean zehar.

*Nace en Ibarra de Aramaiona (Araba) en 1934. Estudió en Vitoria-Gasteiz piano con Tomás Echávarri, armonía con Julio Valdés y más tarde composición con Francisco Escudero.*

*Fue responsable de música y director de la "Schola Cantorum" del Seminario Diocesano de Vitoria desde 1960 hasta 1977. En 1968 colaboró en la fundación del Coro Araba, de voces graves, que dirigió hasta 1985.*

*Desde 1975 fue profesor del Conservatorio de Vitoria, donde ejerció los cargos de jefe de estudios durante diez años y director durante cuatro.*

*Es autor de numerosas obras, principalmente del género coral, así como música religiosa, música vocal y música sinfónico-coral.*

# José Antonio San Miguel

Zaragozan jaio zen, 1967an. Hiru urte zituela, familia Gasteizera aldatu zen, eta han hartu zituen bere lehen musika-eskolak. Gasteizko eta Donostiako kontserbatorioetan akordeoiko goi mailako titulua eta Euskal Herriko Unibertsitatean ingeles filologiako lizentziatura eskuratu ondoren, José Antonio San Miguel Alfaro Parisera joan zen, eta han musikagile handien aholkuak hartu ahal izan zituen, besteak beste Isabelle Duha, Guy Laurent eta, bereziki, Claude Ballif maisuarenak. Geroago Baionan jarraitu zuen ikasten, Peio Çabalette eta Patrick Defossez musikagileekin. Hantxe bukatu zituen konposizio eta orkestazio ikasketak. Oposizioak egin ondoren, Orthezen hasi zen pedagogia-lanetan. Euskal Musikagileen Elkartearen lehendakaria izan zen.

Bere katalogoak hainbat generotan idatzitako obrak jasotzen ditu, musika sinfoniko garaikidea, bandakoa, ganberakoa, elektronikoa, instalazio akustikoak, dokumentalentzako musika, publizitatea, telebista, balletak, bai eta korurako edo instrumentuentzako zenbait egokitzapen.

*Nace en Zaragoza, en 1967. A los tres años se traslada con su familia a Vitoria-Gasteiz, donde recibe las primeras clases de música. Tras obtener el título superior de acordeón en los conservatorios de Vitoria y San Sebastián y la licenciatura en filología inglesa por la Universidad del País Vasco, recibe en París consejos de Isabelle Duha, Guy Laurent y, sobre todo, de Claude Ballif. Estudia en Baiona con los compositores Peio Çabalette y Patrick Defossez. Allí terminará los estudios de composición y orquestación. Tras superar unas oposiciones desarrolla su labor pedagógica en Orthez. Ha sido presidente de la Asociación de Compositores Vasco-Navarros.*

*Su catálogo incluye obras en géneros como música sinfónica, para banda, de cámara, electrónica, instalaciones acústicas, música para documentales, publicidad, televisión, ballets, así como numerosos arreglos corales e instrumentales.*



catalogo Musikaste5.indd 52 23/04/12 15:34

# Carlos Trujillo

Bogotá-n (Colombia) jaio zen. Goi mailako ikasketak Musikenen egin zituen, etra 2011n lizentziatu zen. Beste batzuen artean, Frederic Durieux, Mauricio Sotelo, Miguel Blanco, Eva Gancedo, Alberto Posadas eta Stefano Gervasoni-ren klase magistralak jaso ditu. JONDE-ren (Joven orquesta Nacional de España) beka jaso zuen, eta baita INJUVE-rena ere. Hainbat bakarlari, ensenble eta proiektuetarako musika konposatzen du.

*Nace en Bogotá (Colombia). Realiza sus estudios superiores de composición en Musikene, de donde se licencia el año 2011.*

*Ha recibido clases magistrales de Frederic Durieux, Mauricio Sotelo, Miguel Blanco, Eva Gancedo, Alberto Posadas y Stefano Gervasoni, entre otros. Ha sido becado por la JONDE (Joven orquesta Nacional de España), y por la Asociación INJUVE. Se dedica activamente a la composición musical para diferentes solistas, ensembles y proyectos.*

# Emiliana Zubeldia

Salinas de Oro-n (Nafarroa) jaio zen, 1988an. Iruñean hasi zituen musika ikasketak eta ondoren Madrilen eta Pariseko Schola Cantorum-en eman zien jarraipena: Konposizioa Vicent d´Indy eta Desiré Pacques-ekin; pianoa Blanche Selva-rekin. Lan handia egin zuen piano kontzertista gisa. 1929an Ameriketan zehar itzuli bati ekin zion piano-jotzaile, musikagile eta orkestra zuzendari gisa. 1930 inguruan Mexikon finkatu zen eta bertan Augusto Novaro-ren teoriak ikertu zituen. 1947an Sonorako Unibertsitateak kontratatu zuen eta Unibertsitateko Musika Akademia sortu zuen, bertan irakaskuntza lan itzela egin zuen, 1954an hil zen arte. Hermosillo-n (Sonora) hil zen, 1987an. Koro, ahots, piano, ganbera eta sinfoniko generoetarako obra ugari egin zituen.

*Nace en Salinas de Oro (Navarra) en 1888. Inició sus estudios musicales en Pamplona, los continuó en Madrid y los amplió en la Schola Cantorum de París: composición con Vincent d'Indy y Desiré Pacques; piano con Blanche Selva. Desarrolló una gran actividad como concertista de piano. En 1929 inició una gira por América, presentándose como pianista, compositora y directora de orquesta. Por los años 30 se afincó en México, donde se interesó por las teorías musicales de Augusto Novaro. En 1947 la Universidad de Sonora la contrató, fundando en 1954 la Academia de Música, en la que llevó una incansable labor docente hasta el final de su vida. Falleció en Hermosillo (Sonora) en 1987. Ha dejado un buen número de obras en los géneros coral, vocal, pianístico, de cámara y sinfónico.*



catalogo Musikaste5.indd 53 23/04/12 15:34



La Kantoria
(Musikaste 2011)

# aurkibidea

# índice



Aizkoa Otxotea
(Errenteria 2011)

## COMPOSITORES


Pascual Aldave 40
Paula Álvarez 40
Juan de Anchieta 41
Serafín Argaiz 41
Valentín de Arín 42
Francisco Arrarás 42
José de Azpiazu 43
Primitivo Azpiazu 43
David Azurza 44
Íñigo Bregel 44
Emma Chacón 45
José Rubén Cid 45
Gorka Cuesta 46
Jesús Egiguren 46
Josu Elberdin 47
Francisco Escudero 47
Ignacio Ferrando 48
Mª Victoria Figuerido 48
Tomás Garbizu 49
Juan García de Basurto 49
Junkal Guerrero 50
Mariano Jiménez 50
Alexandre Lesbordes 50
Miguel Matamoro 51
Miguel Navarro 51
Sabin Salaberri 52
José Antonio San Miguel 52
Carlos Trujillo 53
Emiliana Zubeldia 53


## ATALAK


*Aurkezpena*
*Presentación*
*[2]*

*Inaugurazio jarduna*
*Jornada inaugural*
*[4]*

*Igande jarduna*
*Jornada dominical*
*[8]*

*Baterako ekintzak*
*Actividades paralelas*
*[12]*

*Egitarauak*
*Programak*
*[15, 19, 23, 27, 31, 35]*




catalogo Musikaste5.indd 55 23/04/12 15:34

kutxa gizarte

# Ez badirudi ere, finantza-erakunde baten iragarkia da hau. Zure ustez, zeinena da?

(Ez baduzu erantzunik behar, **kutxa**ko bezero zarelako da, eta badakizulako Gizarte Ekintza hau guztia zuri esker egiten dela.)




kutxabank